



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko maiatzaren 27a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren kostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, PFEZaren azken ekitaldian “Beste helburu sozial batzuk” izeneko atalari dagokion % 0,7a aplikatuz ateratzen den zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Alhama ibaian, Corella parean, agertu den isurketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua dela-eta diruz lagundu diren proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, ingurumen hezkuntzako zentroetarako bisita gidatuak eskatu dituzten ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, adarzabalaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, 2009-2012 eperako Tokiko Inbertsio Planean sartu diren obregatik toki entitateek aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 42200 423001 4819 322400 kontusailaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleek 2010-2011 ikasturtean zenbat baja hartu dituzten eta haiengatik zenbat ordezkapen egin diren. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, irakasleentzako lan osasuneko prestakuntza-ikastaro berariazkoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, labore ekologiko berrien balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, energiaren arloan Nafarroako Gobernuak aurrera eramanen duen politika orokorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, mihi urdinaren gaitza eragiten duen birusaren 4. serotipoak Nafarroan duen egoerari eta Nafarroako Gobernuak horri buruz hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikorako 60 milioi euro banatzeko ekintza zehatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita daukan ikastetxe berriak lanbide heziketako ikastetxe integratu izatera pasatu ahal izatea. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita daukan Sanitaria BHIa lekuz aldatu eta harentzako beste eraikin bat egitea, prestakuntza- eta ikerketa-premiei erantzunen diena. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Panpako luma-mottoak, zebra-muskuiluak eta sagar-barraskiloak Nafarroako Foru Komunitatean bizi duten egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, laguntza onetsi ondoren aurrekontuan diru nahikorik ez izateagatik laguntza ukatu den kasuen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Bide eta Eraikuntzako zuzendariaren kargutik kentzeari eta izendapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak legegintzaldi honen amaierara arte abian jarriko dituen plan, proiektu eta ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, gazteak nekazaritzan hasteko laguntza-eskarien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, “Kultura eskura” programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, “Gazteentzako kultur bonoa” programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Leitzako Plazaola geltokirako proiektua abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Antsoingo Udalari Ezkaba mendian lan batzuk egiteko hirigintza-obretako makineria erabiltzeko baimena ematean erabili diren arrazoi edo irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, mendekotasuna balioetsi eta banakako laguntza plana egiten denetik lehenengo laguntzen ordainketa jasotzen denera batez beste iragaten den denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, giza kontsumorako hiltzen diren abereei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, iruzurraren aurkako borroka hobetze aldera arau indardunak aldatzeko egin diren proposamenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, “ezkutuko ekonomia” deitutakoarekin lotutako datu eta ehunekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Galdera, “Nafarroako zaincuria” berariazko deitura suspertzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- Galdera, 2012 Batzorde antolatzaile eta zientifikoaren lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- Galdera, Artzapezpikutzak Eslabako jabetzak jabetza-erregistroan immatrikulatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- Galdera, Artzapezpikutzak jabetza-erregistroan immatrikulatutako ondarean azken 25 urteetan eginiko inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (47. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren kostuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren kostuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 8ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Erriberriko Jaialdiarekin lotutako gai batzuei buruz (PES-626). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Jaialdiko atal bakoitzaren xehakapena.

	Guztira	Departamentua	Erriberriko Udala *	Audenasa
Programa (katxeak, langileak, taldeen bidaiak, ostatu-gastuak, aseguruak, hitzaldiak...)	294.371,70	140.595,43	153.775,57	
Azpiegiturak (argiztapena, harmailak, muntatzea/desmuntatzea, soinua, materialak, ekipoen alokatzea, langileak (muntatzea, desmuntatzea, jendeari arreta egitea, armairuak...)	356.971,25	329.076,96	23.510,32	4383,97
Logistika (autobusak, DYA, zaintzaileak)	5.457,63	1.720,5	3.737,13	
Protokoloa (Inaugurazio- eta itxiera-ekitaldiak...)	1.063,77	86,4	977,37	
Komunikazioa Webgunea, zabalkundea, material inprimatuak, publizitatea, argazkiak	96.619,43	93.891,03		2728,4
Jaialdia, guztira	754.483,78	565.370,32	182.000,39	7.112,37

*Erriberriko Udalaren zenbatekoa honakoetatik heldu da: Ministerioaren diru-laguntza (170.000 euro) gehi babesle gisa egiten duen ekarpena (12.000,39 euro).

2. Ikuskizun bakoitzean ordaindu behar izan duten ikusleen kopurua eta diru-bilketa; asteburuan La Cavan eginiko ikuskizunak.

Diru-bilketa ez da sekula bera izaten, nahiz eta ikusle-kopuru bera egon. Horren arrazoia da prezio desberdinak daudela: sarrera normala, 10 euro; eta erretirodunentzako eta gazte txartela dutenentzako sarrera, 8 euro. Hori dela eta, egun guztietako datuak desberdinak dira:

– Uztailak 16 eta 17: Calígula

Ordaindu duten ikusleen kopurua: 779

Diru-bilketa 7.450 euro

– Uztailak 23 eta 24: El Galán Fantasma

Ordaindu duten ikusleen kopurua: 886

Diru-bilketa 8.350 euro

– Uztailak 30 eta 31: Fuenteovejuna

Ordaindu duten ikusleen kopurua: 886

Diru-bilketa 8.488 euro

Hori igortzen dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, PFEZaren azken ekitaldian “Beste helburu sozial batzuk” izeneko atalari dagokion % 0,7a aplikatuz ateratzen den zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du PFEZaren azken ekitaldian “Beste helburu sozial batzuk” izeneko atalari dagokion % 0,7a aplikatuz ateratzen den zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 15eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du, jakiteko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 nola esleitzen den Nafarroan. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Hona hemen 2009ko zergaldiari dagozkion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren datuak, gaur egun aitortzen erregistroetan jasota daudenak –aitorpena egiteko epea ekainaren 22an amaitu zen–:

Iruñean, 2010eko urriaren 29an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

ZERGA ESLEIPENA PFEZ-2009

% 0,7 “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako” aplikatua	5.315.353,64 euro
“Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako” aukeratu duten zergadunen kopurua	206.732

Galdera, Alhama ibaian, Corella parean, agertu den isurketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Alhama ibaian, Corella parean, agertu den isurketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 15eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru-parlamentariaren elkarteari atxikitako foru-parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Corella parean agertu den isurketarekin lotutako zenbait gairi buruz (PES-629). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Irailaren 22an, Foruzaingoak jakin zuen Cintruenigoko hondakin-uren araztegiako isuriak itxura txarra zuela; hori dela eta, lagin bat hartzea erabaki zuen, haren osagaiak zeintzuk ziren jakite aldera.

Egun berean Nilsako arduradunaren dei bat jaso zen, esanez Cintruenigoko araztegiaren pH azidoa (3,8) zuten isuriak detektatu zituztela, kolore ilunekoak eta zama organiko handikoak. Isurien izaera ikusirik, eta garai hartan mahats uzta biltzen ari zenez, uste izan zen isuriak Cintruenigon dauden bi upategietako batetik zetozela ziurrenik, kolektore sareari lotuak baitaude. Horrenbestez, Foruzaingoari esan zitzaion beharrezkoa zela bi upategietako hondakin-uren laginak hartzea, eta halaxe egin zen irailaren 22an bertan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan irailaren 29an jasotako analisien emaitzak ikusita, ondorioztatu zen isuriaren eragilea Bodega Cirbonera Sociedad Cooperativa enpresa zela; izan ere, jasotako laginaren pHa 4,1ekoa zen, eta zama organikoa, berriz, OEK eta OEB gisa neurtua, oso handia zen. Aldiz, Bodegas Chivite upategiko laginak 7,3ko pHa eta zama organikoa askoz ere txikiagoa zuen.

Ezaugarri horiek zituen industria-isuriak etengabe jarraitzen zuen eta, horren ondorioz, Cintruenigoko hondakin-uren araztegia kontrolatik kanpo geratu zen, eta hala jakinarazi zuen Nilsak ofizialki irailaren 28an.

Horrenbestez, ondorioztatu da Alhama ibaian izandako isuria Cintruenigoko hondakin-uren araztegitik datorrela eta araztegi hori zerbitzutik kanpo geratu zela aldi baterako Bodega Cirbonera Sociedad Cooperativa upategitik etortitako industria-isuria zela-eta.

Isuria izan zen gunetik ibaian beherako sei tokitan eginiko laginketan ikusi zen arrain batzuek igeri egiteko zailtasunak zituztela, eta zailtasun horiek egotzi zitzaizkion bat-bateko oxigeno faltari, isuria dela-eta ur uherrak zituzten guneeetan, baina ez zen hildako arrainik ikusi. Biharamunean eginiko behaketan ere ez zen hildako arrainik ikusi, eta kalteturiko beste animalia edo landarerik ere ez. Horrenbestez, ingurumenean eginiko kaltea oso arintzat kalifika daiteke.

Halaber, ur horiekin ureztatzen diren baratzeetan kalteak izanaren inolako berririk ez dugu.

Behin ondorioztatuta isuriaren eragilea Bodega Cirbonera Sociedad Cooperativa upategia izan zela, jakinarazpen bat igorri zitzaion, isuriak bere jarduera lizentziak baimendutako baldintzetara egokitze beharrezkoak diren neurriak har zitzaizkizuten eskatuz. Halaber, zehapen-espedita bat izapidetzen hasi da.

Aldez aurretik, Nilsa harremanetan jarri zen bi upategiekin eta Cintruenigoko Udalarekin, hori baita industriako hondakin-urak saneamendu sarean isurtzea baimentzen duen organoa, eta jakinarazi zien isuriak eten behar zituztela eta isurgaiak gorde egin behar zituztela, beste araztegi batera eramateko.

Ondorioz, saneamendu sarera eginiko isuriak eten eta gorde egin ziren Tuterako araztegiara eraman arte; han, egokia zen tratamendua behar bezala egin zen, inolako kalterik egin gabe hiriko hondakin-uren arazketa-prozesuari.

Isuriak eten ostean, araztegia normaltasunez funtzionatzen hasi zen urriaren 4ko astean, eta urriaren 7tik aurrera Alhama ibaira eginiko isurien kalitatea egokia zen, eginiko analisien emaitzek ziurtatzen dutenez.

Bestalde, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin harremanetan gaude, gai horri buruzko jarduketak koordinatze aldera.

Zama organiko handiko eta, batez ere, pH azidoa -3 eta 4 bitartekoa- zuten industria isurien ondorioz, araztegia kontrolatik kanpo egon zen;

hori dela eta, ibaira isuri ziren hiriko hondakin-urak ez ziren behar adina araztuta egon irailaren 22tik urriaren 7ra bitartean.

Honekin batera doaz akten eta eskuragarri dauden analisi-emaizten kopiak.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua dela-eta diruz lagundu diren proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua dela-eta diruz lagundu diren proiektuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 15eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Raúl de la Fuente

“Un día más con vida”

10.000 €

– Cronopia films S.L.

Maitena Muruzabal

“Luna lunera”

5.000 €

– Plot Films

Joseba Salegi

“La historia del boticario y la caribeña”

5.000 €

Film laburren produkzioaren modalitatea

(Esleipen-hartzailea/zuzendaria/izenburua/emandako laguntza)

– Iñaki San Román Castanera

“Muertos y vivientes”

25.000 €

– Sergio Morillo Echavarrri

“Basajaun”

15.000 €

– David Aguilar Iñigo

“Thin King China”

6.000 €

– Roberto Goñi Iriarte

“El hombre equivocado”

6.000 €

– Aina Vera Esparza

“En la oscuridad”

5.000 €

– Ion Iraizoz Alonso

“De camino a...”

3.000 €

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES 634) INAAC Ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutuari emandako laguntzei buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutuak 2010ean hartu du bere gain ikus-entzunezkoen esparruko laguntzen gaineko eskumena. Halaber, aurtan hasi da Nafarroan egiten diren jaialdi eta ekitaldi zinematografikoetarako diru-laguntzak ematen. Hain zuzen ere, ondoren aipatzen ditugunak dira:

Ikus-entzunezkoen sorkuntzarako eta sorkuntza zinematografikorako laguntzak, 2010

Film luzeen proiektua garatzearen modalitatea

(Esleipen-hartzailea/zuzendaria/izenburua/emandako laguntza)

– Kanaki Films S.L.

Film luzeen produkzioaren modalitatea

(Esleipen-hartzailea/zuzendaria/izenburua/emandako laguntza)

– Navarra de Servicios Audiovisuales

Iñaki Elizalde

“Baztan”

60.000 €

Orio produkzioak

– Imanol Rayo

“Bi anai”

50.000 €

– Amapola Oria Films (UTE)

Paula Ortiz

“De tu ventana a la mía”

30.000 €

– Somuga Produktora S.L

Asisko Urmeneta

“Gartxot Itzaltzuko Bardoa”

20.000 €

– Arena Comunicación Audiovisual S.L

Pablo Iraburu

“La vida de Iñaki”

20.000 €

Zine jaialdiak eta erakustaldiak lankidetzahitzarmen baten bidez antolatzeko laguntzak, 2010

(Izenburua/arduraduna/izena/emandako laguntza)

- Iruñeko Zinemaldia

Navarra de Cine, S.L

Iruñeko XI Zinemaldia

15.000 €

– Anime Jaialdia

Artyko S. L.

Nafarroako VIII. Anime Jaialdia

10.000 €

– Zinema eta Emakumeak erakusketa

IPES Elkarte

Zinema eta Emakumeak: 24. erakusketa

5.000 €

– FICBE

Berriozar Films Kultura

Gai Sozialei buruzko Film Laburren Nazioarteko III. Jaialdia

5.000 €

– Zinema Mutuaren Astea /Zinema eta Gastronomia

Cine Club Lux /Saide /Nafar Ateneoa

Zinema Mutuaren VIII. Astea /Zinema eta Gastronomia erakusketa

2.000 €

– Art Futura

Uharteko Arte Garaikideko Zentroa

ART FUTURA We Live in Public

3.000 €

– Aktoreentzako ikastaroa

Nafarroako Antzerki Eskola

“De cerca, la cámara, mediadora privilegiada”

1.500. €

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 4an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, ingurumen hezkuntzako zentroetarako bisita gidatuak eskatu dituzten ikastetxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ingurumen hezkuntzako zentroetarako bisita gidatuak eskatu dituzten ikastetxeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ingurumen hezkuntzako zentroetarako bisita gidatuak eskatu dituzten ikastetxeei buruz (PES-636). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna, non ikastetxeen eta ingurumen hezkuntzako zentroak zerrendatzen baitira:

Bertizko Jaurerriko Natur Parkeko Interpretazio Zentroa

Otsagiko Natura Interpretatzeko Zentroa

Erronkariko Natura Interpretatzeko Zentroa

Irunberriko Arroilen Interpretazio Zentroa

Urbasa Andia Natur Parkeko Argibide Zentroa

Pitillasko Aintzirako Natur Erreserbako Hegaztien Behatokia

Vianako Las Cañas Aintzirako Natur Erreserbako Hegaztien Behatokia

Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabideen Zentroak Iruñean duen erakusketa finkoa

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 92. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora Parlamentu Kudeaketan).

Galdera, adarabalaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du adarabalaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du adarabalaren egoerari buruz (PES-

640). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan dauden adarabalek 50eko hamarkadan eginiko birpopulaketan dute jatorria. Animalien askatze horiek oreinak birsartu ziren aldi berean egin ziren. 1956ko abenduan ekarri ziren adarabalak Nafarroako mendietara. Guztira, 46 animalia askatu ziren, honela banatuta: 20 Kintoko mendietan, 18 Lantzen eta zortzi Bertizen. Ordura arte, adarabalik ez zegoen Nafarroako faunan.

Urte haietatik, adarabalen eta oreinen bilakera oso desberdina izan da. Azken horiek populazio osasuntsu, indartsu eta Nafarroako mendietan ongi hedatua izatea lortu den bitartean, adarabalak ez dira berrogeita hamar ingurutik gora izan (gehixeago izan dira, agian, garai aldekoago batzuetan). Hori guztia logikoa da ikuspuntu biolo-

gikotik, zeren eta oreina ingurune eurosiberiarretan ongi egokitutako espezie bat baita, adarabala Mediterraneo aldeko mendi ertainetako espeziea den bitartean.

Oreinak birsartzean asmatu egin zela jotzen da, zeren eta aukera eman baitzuen jada segur aski desagerturik zegoen jatorrizko populazioa berregiteko; adarabalak Kintoko mendietan sartzeko erabakia, berriz, ez zen hain egokia izan.

Zenbait urte dira jotzen dela, ehiza larrian adituak diren teknikarien irizpideetan oinarrituta, adarabala gaizki kokatutako espezie bat dela eta

populazio-etorkizun eskasa duela. Horregatik guztiagatik ordenamendutik kanpo uzten da. Horrek esan nahi du aukera ematen dela adarabalak harrapatzeko ehiza larriko ehizaldiak egiten direnean, kuporik ezarri gabe. Ez dago haien populazioen jarraipenik.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, 2009-2012 eperako Tokiko Inbertsio Planean sartu diren obren- gatik toki entitateek aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txentxo Jiménrez Hervás jaunak galdera egin du 2009-2012 eperako Tokiko Inbertsio Planean sartu diren obren-
gatik toki entitateek aurkeztutako erreklamazioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 15eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak informazioa eskatu du 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planari buruz. Hona Toki Administrazio-
oko kontseilariaren erantzuna.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Toki Administraziooko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentari Txentxo Jiménezek eginiko informazio-
eskariari erantzunez, Toki Administraziooko Departamentuko Idazkaritza Tekniko Orokorak jakitera ematen du 155 toki entitateek aurkeztu zituztela erreklamazioak 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plana onesteari buruzko Toki Administraziooko kontseilariaren ekainaren 22ko 68/2009 Foru Aginduen aurka. Haien zerrenda erantsi dugu.

Halaber, jakitera ematen da 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plana onetsi eta aipatutako erreklamazioak ebazten dituen Nafarroako Gobernuaren 2009ko urriaren 5eko erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu dutela Larraga, Ezporogi, Lerga eta Eslabako udalek.

Iruñean, 2010eko azaroaren 4an.

Idazkari tekniko nagusia: José Ignacio Sola Jiménez

TOKI ENTITATEA	
1	Abartzuza
2	Acedo
3	Oibar
4	Ameskoabarren
5	Añorbe
6	Agoitz
7	Araitz
8	Arakil
9	Aranaratxe
10	Aranguren
11	Arbizu
12	Artzi
13	Areso
14	Aritzaleta (Deierri)
15	Armañanzas
16	Arraitz-Orkin
17	Arribe-Atallu
18	Arrieta
19	Arroitz
20	Arruazu
21	Artaxo
22	Artaxoa
23	Artariain
24	Aiegi
25	Azagra
26	Azkona
27	Azkarate
28	Azparren
29	Bakaiku
30	Bakedao
31	Barañain
32	Barasoain
33	Barbarin
34	Beasoain-Egillor
35	Beintza-Labaien
36	Bera
37	Buñuel
38	Burlata
39	Cadreita
40	Caparroso
41	Zarrakaztelu
42	Cortes
43	Deikaztelu
44	Domeñu
45	Egues
46	Eraul
47	Itzako Eritze
48	Erro
49	Eslaba
50	Estenotz
51	Esteribar
52	Etaio
53	Etxalar
54	Etxarri-Aranatz

TOKI ENTITATEA	
55	Eugi
56	Eulate
57	Ezkabarte
58	Ezkaroze
59	Ezporogui
60	Fitero
61	Gaintza
62	Garisoain
63	Goizueta
64	Gorozin (Deierri)
65	Gesalatz
66	Igantzi
67	Irañeta
68	Iruñela (Deierri)
69	Iturmendi
70	Izurtzu
71	Jaurrieta
72	Xulapain
73	Lakar (Deierri)
74	Lakuntza
75	Laboplacion-Meano
76	Larraga
77	Larrageta
78	Larraun
79	Larrion
80	Lekunberri
81	Lerga
82	Lezaun
83	Longida
84	Los Arcos
85	Irunberri
86	Luzaide
87	Mairagako Mankomunitatea
88	Jurramendiko Mankomunitatea
89	Itzarbeibarko Mankomunitatea
90	Iruñerriko Mankomunitatea
91	Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea
92	Mendabia
93	Mendaza
94	Miranda Arga
95	Elo
96	Monteagudo
97	Mues
98	Murieta
99	Murillo el Fruto
100	Noain
101	Obanos
102	Otsagabia
103	Odieta
104	Oitz
105	Olexua
106	Erriberri
107	Olleta

TOKI ENTITATEA	
108	Olo
109	Olobarren
110	Oloritz
111	Ongotz
112	Orontze
113	Orotz-Betelu
114	Otiñano
115	Iruña
116	Piedramillera
117	Pitillas
118	Gares
119	Puiu
120	Arripodas
121	Erronkari
122	Jaitz
123	San Adrian
124	San Martin Unx
125	Zangoza
126	Zaragueta
127	Sartaguda
128	Sorlada
129	Tabar
130	Tafalla
131	Tebas

TOKI ENTITATEA	
132	Tebas-Muru Artederreta
133	Torres del Rio
134	Tulebras
135	Ugar (Deierr)
136	Ulibarri
137	Ultzama
138	Urdazubi
139	Uritz
140	Urraulgoiti
141	Urraulbeiti
142	Urroz
143	Urrotz
144	Viana
145	Bidankoze
146	Villafranca
147	Villamayor de Monjardin
148	Hiriberri-Artzibar
149	Villatuerta
150	Deierr
151	Esa
152	Zabalegi
153	Zudairi
154	Zuñiga
155	Zurukuain

Galdera, “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 42200 423001 4819 322400 kontusailaren garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 42200 423001 4819 322400 kontusailaren garapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 15eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 42200 423001 4819

322400 kontusailaren garapenari buruz (PES-631). Hona Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Diru-laguntza hori arautzeko hitzarmenaren lanketa eta onespina izapidetzen ari da, Diru-laguntzei buruzko Foru Legean ezarritakoa betez.

Hitzarmenak, besteak beste, honakoak biltzen ditu: egitekoak diren jarduerak eta haiek egitea justifikatzeko txosten tekniko eta ekonomikoa aurkezteko beharra.

Behin hura izenpeturik eta behar diren egiaztazeak egin ondoren, diru-laguntza ordainduko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroan

Kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleek 2010-2011 ikasturtean zenbat baja hartu dituzten eta haiengatik zenbat ordezkapen egin diren.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleek 2010-2011 ikasturtean zenbat baja hartu dituzten eta haiengatik zenbat ordezkapen egin diren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 15eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleek 2010-2011 ikasturtean zenbat baja hartu dituzten eta haiengatik zenbat ordezkapen egin diren (PES-632). Hona Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuak eledun, Era-kunde Harremanetarako kontseilari eta Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroan

Kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Irakasleen bajekin lotutako gai batzuei buruzko galderari dagokionez, Giza Baliabideen Zerbitzuak honakoa esan beharra dauka:

1. galdera: Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleen laneko bajen kopurua, 2010-2011 ikasturtea hasi zenetik gaur arte. Baja horiek zein ikastetxetan gertatu diren zehaztea nahi dugu.

2010eko irailaren 1etik 459 baja izan dira Nafarroako ikastetxeetako irakasleen artean. Baja horietan sarturik daude, baita ere, data hori baino lehen gertatu eta une hartan indarrean zeudenak. Informazio gehiago emate aldera, honela banatu ditugu baja horiek:

- Gaixotasun arruntarengatik: 442.
- Lan istripuarengatik: 7.

- Lanetik kanpoko istripu batengatik: 9.

- 6 hilabeteko luzapenarengatik, baja-aldia agortu ondoren: 1.

Baja horien taula igortzen dugu (2010-10-07koa), non adierazten baita baja noiz hasi zen, alta eman den ala ez eta irakasleak zein ikastetxetan lan egiten duen. Batzuetan irakasle beraren baja bat baino gehiago daude.

OHARRA: Emandako tauletan, ukitutakoen datu pertsonalak kendu dira, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Legearen arabera informazio konfidentziala izateagatik.

2. galdera: Baja horietako zenbat ordeztu dira? Zehaztu zenbat ordeztu diren eta zenbat ari diren oraindik ordezten eta zer ikastetxetakoak diren.

292 kasutan ordezko irakasleak jarri dira. Une honetan, ordezko lanak egiten ari diren 264 lan kontratupeko langile daude. Horrenbestez, 292 baja horietatik 28 jada amaitu dira. Bajei buruzko taula igortzen dugu, ikastetxearen arabera antolatuak.

Eskuineko zutabearen adierazten da gehienez ere noiz arte iraunen duen ordezko lanetarako kontratuak –ikasturtea amaitzen den eguna–.

3. galdera: Ordeztu gabe gelditu al da lanposturik laneko baja dela eta? Hala baldin bada, esan zein izan den arrazoa eta zein ikastetxetan gertatu den hori.

172 izan dira gaur arte ordezkorik jarri ez den irakasleen bajak.

Erantsitako zerrendan egiazta daitekeen bezala, honakoak dira bete ez diren bajak:

- Iraupen oso laburreko bajak.
- Ikasleentzat irakaskuntzakoak ez diren egunetan gertatu diren bajak.
- Irailaren 9ra arte (bigarren hezkuntzan) edo irailaren 17ra arte (musika eta arte eszenikoak) kontratua duten irakasleen bajak, irakasle horiek zerrendetan betetzen duten tokiarengatik kontraturik izanzen ez denean eta lanpostua beste irakasle batek jada bete duenean.

- Bajaren hasiera dela eta (txosten hau egin denetik hurbil) bete ez diren edo betetzeko eskatu ez diren bajak.

Horri dagokionez adierazi behar dut Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiak eta Giza Baliabideen Zerbitzuak ez dutela inolaz ere aintzat hartu irakasleen laneko bajak betetzeari uzteko aukera, horrek arriskuan jarriko lukeelako irakasleen hezkuntzarako eskubidea.

Horrek ez du esan nahi bajen % 100 bete behar direnik edo gertatzen diren lehen egunetik bete behar direnik. Hona baja bat ez betetzeko edo betetzea atzeratzeko arrazoi nagusiak:

- Bajaren iraupena: baja oso laburra izanen dela aurreikusten bada ez da betetzen, non eta ez den eskola unitario bat edo ikastetxeak justifikatzen ez duen premiazkoa dela lehenbailehen betetzea. Ikastetxea bera eta interesduna dira auzi hau hobeki ezagutzen dutenak; hortaz, ez da baja betetzeko izapidea abiarazten ikastetxeak eskatzen ez badu edo interesdunak baja ematean baja laburra izanen dela adierazten badu.

- Baja noiz gertatzen den: eskola-oporrak edo oporren aurreko egunak, eskolarik gabeko egunak, zubiak edo inauterietako astea, herriko jaiak, eta abar.

- Espezialitatea edo lanpostuaren profila, zail egiten dutenak ordezeko bat kontratatzea, dela titulazio egokia duten pertsonak ez daudelako, dela eskatzen den profil berariazkoa betetzen ez duelako (espezialitate bikoitza, zeinuen hizkuntza, hizkuntzen C1 profila, eta abar).

- Irakaslearen lanaldia bete behar da. Lanaldi partzialeko lanpostuak (bereziki lanaldi erditik beheitikoak) zailak dira betetzen, eta bitarteko irakasleak ez daude behartuta kontratu horiek onartzera.

- Salbuespenez, ikastetxeak adierazitakoari jarraikiz, ez dira betetzen, zerbitzua gainontzeko irakasleek eman dezaketelako.

- Zenbait baja, berriz, ez ditu pertsona batek zuzenean betetzen. Ikastetxean lanaldi partzian kontratatutako pertsonak baldin badaude, kontratua duenaren lanaldia handitzen da, ikastetxeak hala eskatuta eta ikuskaritzaren oniritziarekin. Alta gertatzen denean, kontratuduna lanaldi partzialeko bere hasierako kontratura itzultzen da. Egoera hori ez da egindako ordezkapen gisa jasotzen programan, lanaldi partzialeko lanpostu huts baten zabalpena delako.

Baiezta daitekeena da, arestian adierazitako salbuespenak salbuespen, baja guztiak betetzen direla eta oro har behar bezain azkar betetzen direla, ikastetxeetako zuzendariak berek onartzen duten moduan.

Ikastetxeek eskatutako baja guztiak daude beteta une honetan, salbu eta betetzea kostatzen ari zaigun bi hauek:

- Vázquez de Mella Ikastetxe Publikoko maisu lanpostu bat, akordeoiko erdi mailako edo goi mailako profila duena. Aukera guztiak agortuta, baime-na eman da kontserbatorioko akordeoiko zerrendatik bigarren hezkuntzako irakasle bat kontratatzeko.

- Perkusio-irakasle lanpostu bat, goi mailako kontserbatoriorako. Zerrenda agortuta, izangaien zerrenda eskatu diogu Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, eta ikastetxea ari da izangaiekiko elkarrizketak egiten.

Azkenik jasota utzi nahi dut ikastetxeetako zuzendaritzek nahiz ikastetxeetako elkarteek auzi honi buruzko balorazio positiboa helarazi diotela Departamentuari.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria Begoña Unzué Vela

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora Parlamentu Kudeaketan).

Galdera, irakasleentzako lan osasuneko prestakuntza-ikastaro berariazko- ei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du irakasleentzako lan osasuneko prestakuntza-ikastaro berariazko-iei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 15eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Luisa Mangado Cortés andreak galdera egin du irakasleentzat ematen den laneko osasunaren arloko prestakuntzari buruz (PES-633). Erantzute aldera, Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak honekin batera doan informazioa igorri du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoa betetze-ko.

Iruñean, 2010eko azaroan

Kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Laneko arriskuen prebentziorako atalak kudeaturiko prestakuntza

– Laneko arriskuen prebentzioaren arloan, 2008-2009 ikasturtean eginiko prestakuntza:

Norentzat: irakaskuntza ertainetako irakasleen kidegoan sartzeko oposizioak gainditu eta praktikak egiten ari diren funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako 555 irakasle.

Prestakuntza saioak: zazpi prestakuntza jarduerak, 9 ordukoak

– Laneko arriskuen prebentzioaren arloan, 2009-2010 ikasturtean eginiko prestakuntza:

Norentzat: Maisu-maistren kidegoan sartzeko oposizioak eta praktikak egiten ari diren funtzionarioak: Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako 599 maisu-maistra.

Prestakuntza saioak: hamar prestakuntza jarduerak, 9 ordukoak

– Laneko arriskuen prebentzioaren arloan, 2010-2011 ikasturterako programaturako prestakuntza. :

Norentzat: Irakaskuntza ertainetako irakasleen kidegoan sartzeko oposizioak gainditu eta praktikak egiten ari diren funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako 554 irakasle

Prestakuntza saioak: hamar prestakuntza jarduerak, 9 ordukoak

– Autobabeserako planak ezartzearen arloan, 2009-2010 ikasturtean eginiko prestakuntza:

Norentzat: Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako langile guztiak, irakasleak eta irakasle ez direnak

Prestakuntza saioak: 65 prestakuntza jarduerak, 2-3 ordukoak

– Autobabeserako planak ezartzearen arloan, 2009-2010 ikasturtean eginiko prestakuntza:

Norentzat: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako langile guztiak, irakasleak eta irakasle ez direnak

Prestakuntza saioak: 70 prestakuntza jarduerak ikasturteko lehen hiruhilekoan, eta 50 prestakuntza jarduerak bigarren hiruhilekoan, 2 ordukoak

– Laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza, praktikak egiten ari diren irakasleentzat Hezkuntza Departamentua

Programa:

1. saioa

1. Laneko arriskuen prebentzioaren alderdi orokorrak (ordubete)

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau-esparrua

Segurtasunaren eta lan osasunaren oinarriko kontzeptuak

2. Irakaskuntzaren arloan agertzen diren arrisku faktoreak (2 ordu)

Segurtasunari buruzko arrisku faktoreak. Prebentzio-neurriak

Ergonomiari buruzko arrisku faktoreak. Prebentzio-neurriak

Arrisku psikosoziala ekar dezaketen faktoreak.
Prebentzio-neurriak

2. saioa

3. Irakaskuntzaren arloan agertzen diren arrisku faktoreak - Jarraipena (1 ordu)

Jatorri biologikoa duten arrisku faktoreak.

4. Lehen sorospenei buruzko oinarrizko ezagutza (2 ordu)

3. saioa

5. Langileen osasuna zaintzea (3 ordu)

Osasunaren berriazko zaintza.

Ahotsa erabiltzearen ondoriozko arriskuak.

Autobabeserako planei buruzko prestakuntza Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetarako Hezkuntza Departamentua

IKASTAROAREN EDUKIA:

Autobabeserako Planari buruzko modulua:

- Autobabeserako Plana: kontzeptua eta helburua
- Norainokoa
- Eraikinari buruzko informazio orokorra
- Jardueratik eratorritako arriskuen azterketa
- Ikastetxean autobabeserako dauden neurri eta baliabideen inbentarioa eta deskribapena
- Larrialdietarako jarduketa-plana
- Larrialdi orokorretako protokolo-komunikazioak eta telefono interesgarriak
- Zuzendaritzaren ardurak

- Esku hartzen duen taldearen ardurak
- Langileen ardurak
- Autobabeserako Plana ezartzea eta mantentzea
- Instalazioen mantentze-programa

Lehen sorospenei buruzko modulua (teoria eta praktika):

- Zauriak eta odol-isuriak
- Erredurak
- Asfixia
- Bihotzeko patologiak
- Traumatologia: hausturak, luxazioak, bihurdurak, immobilizazioa...
- Jarduketa-arau orokorrak. Babestu-ohartarazi-sorostu
- Bihotz-biriken erreanimazio-praktikak panpinarekin

Su-itzaltzeari buruzko modulua (teoria eta praktika):

- Sua, suaren triangela
- Sute baten faseak
- Itzaltze metodoak
- Itzalgailuak
- Itzalgailu eramangarria
- Itzaltze-sistema finkoak
- Larrialdi plana
- Su-itzalgailuen eta suteetarako ur-hartune ekipatuen erabilerari buruzko praktikak

IRAKASLEENDAKO PRESTAKUNTZA-PLANAREN BARRUAN, ARIBIDEAN DAUDEN OSASUN ARLOKO PRESTAKUNTZA-JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA. 2008/2009 IKASTURTEA

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itunduetan destinoa duten eta jardunean ari diren irakasleei zuzenduriko jardueren zerrenda:

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Ahotsa inpostatzea (diagnosiarekin)
Noiz: otsaila-apirila	Non: Iruñeko Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ)
Iraupena: 16 ordu	
Helburua: Ahotsa modu egokian erabiltzen ikastea, kontuan hartuta parte-hartzaileen ageriko patologiak.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Ahotsa inpostatzea
Noiz: apirila	Non: Iruñeko Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ)
Iraupena: 16 ordu	
Helburua: Ahotsa modu egokian erabiltzen ikastea	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Ahotsa inpostatzea
Noiz: martxoa-apirila	Non: Tuterako Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ)
Iraupena: 16 ordu	
Helburua: Ahotsa modu egokian erabiltzen ikastea.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Ahotsa inpostatzea
Noiz: apirila-maiatza	Non: Azagrako DBHI
Iraupena: 16 ordu	
Helburua: Ahotsa modu egokian erabiltzen ikastea.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Ahotsa inpostatzea.
Noiz: otsaila-martxoa	Non: Tafallako Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ)
Iraupena: 16 ordu	
Helburua: Ahotsa modu egokian erabiltzen ikastea.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Estresari aurrea hartzeko teknikak.
Noiz: apirila-maiatza	Non: Iruñeko Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ)
Iraupena: 20 ordu	
Helburua: Giharrak eta arnasa desblokeatzeko teknikak ikastea. Lanaren ondoriozko estresa, antsietatea eta beste gaixotasun psikosomatiko batzuk arintzeko teknikak praktikan jartzea.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Lehen sorospenak
Noiz: otsaila-martxo	Non: Erriberriko HLHIP
Iraupena: 13,5 ordu	
Helburua: Lehen sorospenei buruzko oinarrizko praktikak ezagutzea eta horiek aplikatzen ikastea. Ikastetxeetan arriskuei aurrea hartzeko neurriak ezartzeko bidea ematea.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Lehen sorospenak
Noiz: martxo	Non: Lekarozko Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ)
Iraupena: 13,5 ordu	
Helburua: Lehen sorospenei buruzko oinarrizko praktikak ezagutzea eta horiek aplikatzen ikastea. Ikastetxeetan arriskuei aurrea hartzeko neurriak ezartzeko bidea ematea.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Lehen sorospenak
Noiz: maiatza	Non: Lizarrako Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ)
Iraupena: 13,5 ordu	
Helburua: Lehen sorospenei buruzko oinarrizko praktikak ezagutzea eta horiek aplikatzen ikastea. Ikastetxeetan arriskuei aurrea hartzeko neurriak ezartzeko bidea ematea.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Gorputz-jarrera berrantolatzea (Adhara metodoa)
Noiz: apirila-maiatza	Non: Iruñeko Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ), gainerako ILZe irekia.
Iraupena: 12 ordu	
Helburua: Giharren eta gorputz-jarreraren higiena praktikan jartzea, bai eta gorputz-jarrera berrantolatzeke metodo praktikoa ere. Irakasleen eta ikasleen osasunean eragiteko ezagupenak ematea.	

Mota: ikastaroa	Arloa: LAN OSASUNA
Zein etapari zuzendua: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Izenburua: Autobabeserako Plana. Nola jokatu larrialdien aurrean ikastetxeetan
Noiz: otsaila-apirila	Non: Iruñeko Irakasleei Laguntzeko Zentroa (ILZ), erdi-presentziala, gainerako ILZeirekia.
Iraupena: 30 ordu	
Helburua: Zuzendaritza-taldeei beharrezkoak diren ezagupenak ematea, ikastetxeko autobabeserako plana ezarri eta mantendu dezaten. Ikastetxean gerta daitezkeen larrialdien aurrean erantzun egokia emateko bidea ematea.	

Iruñeko Irakasleei Laguntzeko Zentroko Lan Osasunaren Arloko arduraduna, harremanetarako:

Paloma Ros Latienda

Iruñeko ILZko Teknologiako, Lan Osasuneko eta Marrazketa Teknikoko aholkularia

948 291 714

tecnologia.cap.pamplona@pnte.cfnavarra.es

Txema Sáez Porres

Irakasleen Hobekuntzako Atala

Kalitate eta Genero Berdintasunaren Zerbitzua

2009/2010 IKASTURTEA				
Titulua	Datak	Ikasle kop.	Orduak	ILZ
Ahotsa inpostatzea (diagnoiarekin)		16	18	ILZ guztiak, Iruñean
Ahotsa inpostatzea		18	16	Lizarra-Lekarotz-Iruña, Iruñean
Ahotsa inpostatzea		20	16	Tutera
Ahotsa inpostatzea		20	16	Tafallan, Lizarra-Lekarotz-Iruñari irekia
Gorputz-jarrera berrantolatzea		24	12	ILZ guztiak, Iruñean
Gorputz-jarrera berrantolatzea		18	12	José M ^a Iribarren HOHIP
Estresari aurrea hartzeko baliabide psikofisikoak		28	15	Lizarra-Lekarotz-Iruña-Tafalla, Iruñean
Estresari aurrea hartzeko baliabide psikofisikoak		28	15	Tutera
Laneko arriskuen prebentziorako oinarrizko ikastaroa (erdi-presentziala)		30	35	ILZ guztiak, Iruñean presentzialak
2010/2011 IKASTURTEA				
Titulua	Datak	Ikasle kop.	Orduak	ILZ
Ahotsa inpostatzea (diagnoiarekin)	1. hiruilekoa	16	16	ILZ guztiak, Iruñean
Ahotsa inpostatzea	2. hiruilekoa	18	16	Iruña-Tafalla-Lekarotz, Iruñean
Ahotsa inpostatzea	2. hiruilekoa	18	16	Tutera
Ahotsa inpostatzea	1. hiruilekoa	20	16	Lizarra, Iruñeari irekia
Gorputz-jarrera berrantolatzea	1. hiruilekoa	22	12	ILZ guztiak, Iruñean
Lehen sorospenak	2. hiruilekoa	15	10	Tafalla, gainerakoei irekia
Lehen sorospenak	2. hiruilekoa	15	10	Lekarotz, Iruñeari irekia
Pertsonen arteko harremanak hobetzea ikastetxeetan	2. hiruilekoa	24	15	ILZ guztiak, Iruñean
Musikoterapia	2. hiruilekoa	20	12	ILZ guztiak, Iruñean

Galdera, labore ekologiko berrien balorazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du labore ekologiko berrien balorazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du labore ekologiko berrien balorazioari buruz (PES-637). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Departamentuak dakienez, Nafarroako Foru Komunitatean ez dago "labore ekologiko berririk"; behintzat, ez du horren berri eta ez du horri buruzko inongo informaziorik jaso. Azken urteetan badira zenbait jarduera (ez, ordea, berriak) zerikusia dutenak usain-landareekin eta sendabelarrekin, ekoizpen ekologikoko bihurtzen ari diren olibadiekkin eta fruta-ustiategiekin; eta labandina (lavandula hybrida) eta lupulua egiteko proiektuak ere

badira. Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluaren (CPAEN-NNPEK) idazkariarekin harremanetan jarri eta, esaten digunez, Kontseilurak ere ez du labore ekologiko berririk jarri izanaren berri, aipatutako proiektuak alde batera utzita.

Edozein modutan, Nafarroako Gobernuak nekazaritza ekologikoaren garapenari buruz egiten duen balorazioa positiboa da betiere. Balorazio horren isla dira ekoizpen sistema horren babeserako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren bidez egin diren ekintza zehatzak; honakoak dira, laburtuta: nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako 2,3 milioi euro eman dira zuzeneko diru-laguntzetan, ekoizleentzako aholkularitza teknikoa finantzatu da ITG agrícolaren bidez eta, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluari laguntzeko, berariazko lerro bat jarri da eta beste lankidetzak-ekintza batzuk ere gauzatu dira ahalik eta gehiena soiltzeko Kontseiluko laguntzen, kudeaketaren eta kontrolaren izaipideak.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, energiaren arloan Nafarroako Gobernuak aurrera eramanen duen politika orokorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du energiaren arloan Nafarroako Gobernuak aurrera eramanen duen politika orokorrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Gobernuak energiaren alorrean aurrera eramandako politika orokorrari buruz (PES-638/10). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Pozgarria da ikustea Nafarroa Bai parlamentu-taldea Nafarroako Gobernuarekin bat datorrela eta baloratu egiten duela energiak Foru Komunitatea-

ren gaur egungo eta etorkizuneko garapenean eta ongizate-estatuaren indartzean duen garrantzia.

Nafarroako Gobernuak arlo honetan emandako urratsak jasota eta antolatuta daude integrala eta eredu horizontalekoa den plangintza-tresna batean, nola baita Nafarroako energia plana.

Gaur egun, amaierako exekuzio-fasean dago "2010erako Nafarroako Energia Plana, eta orobat amaierako prestatze-fasean dago energia plan berria.

Plan horrek 2020. urtera bitarteko erreferentzia-ikuspegia hartzen du barrenean, eta horrek modua emanen dio Nafarroari esparru nazional

eta europarrean arlo honetarako taxuturiko jarduketan plan handiekin koordinatzeko.

Nafarroako energia plan berriak energia-afere hiru alderdi funtsezkoetako jarduketak jasoko ditu; hots, energiaren sorkuntzari, garraioari eta banaketari dagozkionak. Plan berriko elementu estrategiko izanen da energia berriztagarriei, aurrezpenari eta iraunkortasunari bultzada ematea. Plan horrek aparteko izaera daukaten atalok jasotzen ditu: Nafarroako ibilgailu elektrikoaren proiektua eta azpiegitura elektrikoak hobetzeko plana.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, mihi urdinaren gaitza eragiten duen birusaren 4. serotipoak Nafarroan duen egoerari eta Nafarroako Gobernuak horri buruz hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du mihi urdinaren gaitza eragiten duen birusaren 4. serotipoak Nafarroan duen egoerari eta Nafarroako Gobernuak horri buruz hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du mihi urdinaren gaitza eragiten duen birusaren 4. serotipoak Nafarroan duen egoerari eta Nafarroako Gobernuak horri buruz hartutako neurriei buruz (PES-639). Hona hemen Landa

Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, Nafarroan ez dago 4. serotipoaren eraginik. Espainian, serotipo hori soilik Andaluzian detektatu da, eta txertatze-programa bat ezarri dute. Espero dugu programa horren bidez birusaren zabalkundea kontrolatzea.

Zaintza-programa bat ezarri dugu, zeinaren bidez hilero animalien azterketak egiten baititugu, mihi urdinaren gaitza eragiten duten birusen balizko zirkulazioa detektatzeko. Azken urtean ez dugu inolako serotiporik detektatu. Hala ere, Andaluzian agertu den fokua zabaltzen bada, beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira, Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurumeneko Ministerioarekin koordinatuta.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikorako 60 milioi euro banatzeko ekintza zehatzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikorako 60 milioi euro banatzeko ekintza zehatzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

CDN-Convergencia de Demócratas de Navarra parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoan barruan 2010erako aurreikusitako ekintza eta inbertsioei buruz. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

2010eko azaroaren 15ean

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

2010eko jardueretarako aurreikusitako aurrekontua

Neurrien laburpena	2010erako aurreikusitako aurrekontua
Errepideko komunikazioak hobetzea	31.887.857,17
Informazioaren teknologia berrietarako sarbidea hobetzea	1.813.569,95
Tokiko azpiegiturak hobetzea	6.614.316,39
Lehenengo sektorearekin zerikusia duten jarduerak sustatu eta egokitzea	2.500.000,00
Jarduera ekonomikoa eta enpresa-ekimena sustatu eta bultzatzea industriari, zerbitzuei, jarduera turistikoari eta merkataritzari dagokienez	500.000,00
Sektore turistikoaren sustapena eta dibertsifikazioa	2.165.000,00
Pirinioetarako marketing plan bat ezartzea	4.350,00
Kultur- eta ondare-baliabideak leheneratu eta babestea eta horiei balioa ematea	500.000,00
Hirigintza-garapena, etxebizitza lortzeko baldintzak eta hiri-sistemaren egitura hobetzea	2.823.014,23
Natur ingurunearen babesa, zaintza eta balio ematea hobetzea	3.647.593,00
Zerbitzu publikoak lortzeko baldintzak hobetzea	3.200.000,00
Neurri positiboak ezartzea natur ingurunea babestu eta zaintzeari eta jarduera ekonomikoari dagokienez	2.312.067,39
Nafarroako Pirinioak garatzeko plan estrategikoaren kudeaketa	145.624,58
Guztira	57.958.956,33

2010ean proiektu enblematikoetarako aurreikusitako aurrekontua

Proiektu enblematikoak	2010erako kalkulaturiko aurrekontua
Pirinioetako atariaren proiektua-judasen benta	100.000,00
Hirigintza eta ingurumen arloko aholkularitza bulegoa	512.666,67
Burgi eta Errobiko industrialdeak handitzea (Aurizberri)	500.357,62
Jarduteko balio anitzeko esparruen sorrera	550.000,00
Itoizko urtegiko jolas-erabileretarako jarduerak	456.792,00
Guztira	2.119.818,29

laburpen orokorra	
	2010erako aurreikusitako aurrekontua
Neurriak	57.958.956
Proiektu enblematikoak	2.119.816
Guztira	60.078.772

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita daukan ikastetxe berriak lanbide heziketako ikastetxe integratu izatera pasatu ahal izatea.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita daukan ikastetxe berriak lanbide heziketako ikastetxe integratu izatera pasatu ahal izatea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María

Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, ikastetxe berriak lanbide heziketako ikastetxe integratu izatera pasatu ahal izateari buruzkoa (PES-643). Hona hemen Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako eta Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak, legegintzaldi honen hasieran, proposamen bat prestatu zuen, ikastetxe integratuen eredia zabaltzeko Lanbide Heziketako zenbait ikastetxetara; eta, hala, lau urtez proiektu pilotu bat garatu da lau ikastetxetan.

2010ean, ikastetxe integratu izateko baldintzak betetzen dituzten Lanbide Heziketako ikastetxeek aztertu dute ikastetxe integratu bihurtzeko aukera, eta guztiak aldaketa hori egiteko prest agertu dira. Zuzendaritza-taldeek, klaustroek eta eskola-kon-

tseiluek babesa eman diote ikastetxe integratu gisa izendatzeari.

Horrenbestez, legegintzaldi honetako ekintzen ildo estrategikoak garatze aldera, onestear da zenbait BHI ikastetxe integratu bihurtzea. Inplikaturiko ikastetxeetako zuzendaritza- eta parte hartze-organoeak, adierazi den moduan, beren babesa eman diote proposamen bati, zeina Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseiluari igorri baitzaio. Kontseilu horrek, urriaren 13an eginiko bilkuran, erabaki zuen ikastetxe integratuen eredia zabaltea Nafarroako Lanbide Heziketako beste ikastetxe batzuetara.

Hala, ikastetxe politekniko integratuaren eredia, gaur egun Tuterako ETIn eta Iruñeko Bideko

Ama Birjina eta Donapea ikastetxeetan ezarrita dagoena, zabaldu ahalko da, bederen, Lizarrako eta Tafallako Lanbide Heziketako ikastetxeetara. Aldiz, ikastetxe integratu sektorialen eredia, egun Imarkoingo Energia Berriztagarrien Goi Mailako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integraturako zehaztuta dagoena, zabaldu ahalko da "Sanitaria" BHIra –hau izanen da etorkizunean Osasun arloko Lanbide Heziketako Erreferentzia-zentro nazionala–, -"Agroforestal" BHIra eta -"María Ana Sanz" BHIra.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2010eko azaroan

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuerras

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita daukan Sanitaria BHIa lekuz aldatu eta harentzako beste eraikin bat egitea, prestakuntza- eta ikerketa-premiei erantzunen diona.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusita daukan Sanitaria BHIa lekuz aldatu eta harentzako beste eraikin bat egitea, prestakuntza- eta ikerketa-premiei erantzunen diona.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Sanitaria BHIari buruz (PES-00644). Hona hemen Nafarroako Gobernuako ele-dun eta Erakundeekiko Harremanetarako eta Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bitartez, 2009ko maiatzean proiektu guztiz osatua aurkeztu zion Estatuko Administrazio Orokorrari, Nafarroan koka zedin osasun arlo-

ko lanbide heziketako erreferentzia nazionalako ikastetxea, etorkizunean eginen dena. Proiektuari buruzko oniritziaren eta hori aurrera eramateko bermeen emaitza gisa, 2009ko irailaren 23an Lanbide Heziketaren Kontseilu Orokorrak, Estatuaren proposamena abiapuntu hartuta, ikastetxe hori Iruñean egiteko hautua irmotu egin zuen, erreferente operatibo gisa Sanitaria BHI harturik.

Erreferentzia nazionalako ikastetxe hori hautatzeko proiektuan jaso egin zen Nafarroako Gobernuak eginiko proposamena, hots, Estatuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean kofinantzatzea ikastetxe berri horretarako eraikin berri bat.

Azken hilabeteotan, ikastetxe hori Nafarroan egiteko erabakia berretsi ondoren, eta azaroaren 30eko TIN/3271/2009 Aginduan aurreikusitakoari jarraikiz (agindu horren bidez oinarri arautzaileak ezartzen ziren, Lanbide Heziketako erreferentzia nazionalako ikastetxe bilaka daitezkeen ikastetxe-etarako instalazioen eta ekipamenduen eraketa, erosketa edo berriztapena finantzatzera bideraturiko diru-laguntzak emateari buruzkoak), Hezkuntza Departamentuak, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, deialdian parte hartzea erabaki zuen. Horretarako, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari aurreproiektu bat aurkeztu zion, zeinetan konpromisoa hartzen baitzuen beharrezkoa den lur-saila lagatzeko,

egitekoa den ospitale-ikerketako gunean, eta ikastetxe berri horren eraikuntza-lanak kofinantzatze-ko.

Alabaina, deialdiaren ebazpenean, Lan Ministerioak ez zuen jo justifikatuta zegoenik ikastetxe berri bat eraikitzea.

Hezkuntza Departamentua jakinaren gainean dago, 2011ko Estatuko aurrekontu orokorre zuzenketa bat aurkeztu zaiela, eta horregatik jotzen da oraindik aukera guztiak ez direla ahitu Estatuko Administrazio Orokorrak ikastetxe berri horren eraikuntzan 2011n parte hartu ahal izateko. Horregatik, eta ikastetxe berri hori egiteari dagokionez Nafarroako Gobernuak hartu duen konpromisoari utsita ere, aukera ezberdin batzuek irekita segitzen dute oraindik, horren aurrekontu-izla modu batekoa edo bestekoa izatea lekarketenak.

Azkenik, eta eraikin berria egiteari dagokionaz landa, Hezkuntza Departamentua beharrezkoak diren urrats guztiak egiten ari da Sanitaria BHk osasunaren alorreko erreferentzia nazionalako ikastetxe modura egiazki jardun dezan lortzeko. Ekintza horien artean, nabarmentzekoa da ikastetxe integratu gisa hautatzea. Eraldaketa hori datozen asteotan egingen da, Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseiluak joan den urrian eginiko bileran aldeko iritzia eman ondoren.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2010eko azaroan

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuerras

Galdera, Panpako luma-mottoak, zebra-muskuiluak eta sagar-barraskiloak Nafarroako Foru Komunitatean bizi duten egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Panpako luma-mottoak, zebra-muskuiluak eta sagar-barraskiloak Nafarroako Foru Komunitatean bizi duten egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 29ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zer egoeratan dauden Nafarroako Foru Komunitatean Panpako luma-mottoa, zebra-muskuilua eta sagar-barraskiloa (7-10/PES-648). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Panpako luma-mottoa (Cortaderia selloana) espezie aloktono inbaditzaile bat da, Nafarroako leku gutxi batzuetan basati bihurtuta ageri dena. Hiriguneetako lur-eremuetatik kanpo, non basati bihurtu baita, ez da beste inon sail handietan

topatu, nahiz eta aipamen solteren bat bildu den Baztanen, Urdazubin eta Iruztunen. Zenbait espezie exotikoren egoeraren jarraipenaren esparruan, berraztertzen ari gara gaur egun espezie honek zer estatus duen Nafarroako Foru Komunitatean; izan ere, oso zabaldua dago mugakide ditugun lurralde euritsu eta tenperatura ez-hotze-koetan (Bizkaian eta Gipuzkoan).

Zebra-muskuilua (*Dreissena polymorpha*), Nafarroan, leku hauetan bakarrik ageri da: Ebro ibaian, Tausteko ubidean eta Ubide Inperialean eta Ebro ibaiko ura erabiltzen duten eta ibai horren mugakide diren kanal-sistema batzuetan (Mendabian, San Adrianen, Tuteran, Buñuelen...). Egoera hori nahiko egonkor dago azken bost urteotan, eta hizpide dugun espeziea, gaur arte, ez da agertu esandako lekuak baino iparrerago. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, aldizka-aldizka, laginak hartzen ditu ibai-sarean bai eta muskuiluak egon daitezkeen ur-gorputzetan, hau da, Nafarroako ibaietan eta urtegi guztietan. Lagin horiek urtero hartzen dira, urteko hiru momentutan, muskuiluen ugaltze-une gorenarekin bat hain zuzen (ekainean, abuztuan eta urrian). Era beran, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, urtero hark ere, Ebro ibaiaren arroko urtegi guztietan hartzen ditu laginak, halako moduz non osatu egiten baita Nafarroak egiten duen jarraipena. Prebentzioko

kontrol-lan handi horrez gain, beste zenbait neurri ere hartu dira. Hala, nahitaezkoa da arrantza-aparailuak desinfektatzaileekin garbitzea; bestalde, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinatuta, debekatu egin da zebra-muskuilua dagoen urtegietatik txaluparik ateratzea, eta txalupak desinfektatzeko puntuak jarri dira. Informazio- eta sentibiltasio-kanpainak ere egin dira, eta zenbait herritan, bereziki gaixotasuna agertu berritan, urreztatze-sistemak babesteko neurriak hartzeko laguntzak eman izan dira; neurri horiek sistema fisikoak izan dira –iragazkiak–, bai eta, sistema itxietan, metodo kimikoak ere, hala larbak nola helduak kontrolatzeko.

Sagar-barraskilorik (*Pomacea canaliculata*) ez da detektatu Nafarroan, eta espezie horren eskakizun ekologikoak direla-eta, bereziki temperaturari dagokionez, ez dirudi gerta daitekeenik gure lurraldean halakorik izatea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, laguntza onetsi ondoren aurrekontuan diru nahikorik ez izateagatik laguntza ukatu den kasuen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du laguntza onetsi ondoren aurrekontuan diru nahikorik ez izateagatik laguntza ukatu den kasuen kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du, honakoari buruz: laguntza onetsi ondoren, aurrekontuan diru nahikorik ez izateagatik laguntza ukatu den kasuen kopuruari buruz (PES 642-10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gizarte-zerbitzuen gaur egungo sistema abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, antolatua da. Horren arabera, gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren prestazioen multzoa, aplikazio-esparrutat Nafarroako Foru Komunitate osoa duena, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan zehazten da, non sarturik baitaude prestazio bermatuak, eta prestazio horietatik bereizten ditu bermatu gabeko prestazioak.

Bermaturiko prestazioak, Figueras andreak bere galderan aipatzen dituenak, eska daitezke, hain zuzen, foru legean bertan xedatuari jarraikiz, gutunean adierazitakoaren arabera eskubide subjektibo gisa; eta, eskubide gisa aintzat ematen denetik aurrera, Administrazioari horren betetzea eska dakiok.

Arau-xedapen horren arabera, mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bati aintzat emandako prestazio bermatu bat kasu bakarrean ere ez da ukatu aurrekontuan diru nahikorik ez egoteagatik.

Iruñean, 2010eko azaroaren 16an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Bide eta Eraikuntzako zuzendariaren kargutik kentzeari eta izendapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José M.^a Vázquez Royo jaunak galdera egin du Bide eta Eraikuntzako zuzendariaren kargutik kentzeari eta izendapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Bide eta Eraikuntza Zerbitzuko zuzendaria kargutik kentzeari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusian 2010eko irailaren 17an aurkezturiko idazki baten bidez, Jesús González Alberto jaunak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak, bide, ubide eta portuetako ingeniari lanpostua betetzen zuenak eta garai hartan Bide eta Eraikuntza Zerbitzuko zuzendari zenak, bere lanpos-

tuan interes partikularrarengatiko borondatezko eszedentzia eskatu zuen, 2010eko urriaren 4tik aurrerako eraginarekin.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak aldeko iritzia adierazi zuen eszedentzia emateari buruz.

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren irailaren 27ko 2660/2010 Ebazpenaren bitartez, Jesús González Alberto jaunari interes partikularrarengatiko borondatezko eszedentzia eman zitzaion, 2010eko urriaren 4tik aurrerako eraginarekin; beraz, egun horretatik aurrera hutsik geratu zen Bide eta Eraikuntza Zerbitzuaren zuzendaritza.

Hutsik geratutako lanpostua betetzeko, bide, ubide eta portuetako ingeniari Estela Moso Sara-sa andrea proposatu zuten, eta urriaren 4ko 63/2010 Foru Dekretuaren bidez (urriaren 15ean argitaratua, 125. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean) izan zen izendatua.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenen egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 29ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Zangozako industrialdeko biribilguneari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna, bere departamentuari dagokionez:

2010eko apirilaren 20an, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak gai honi buruz eginitako galderari erantzun zion; galdera argitaratu zen 2010eko apirilaren 9ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, 35. zenbakiko 20. orrialdean, hain zuzen.

Erantzun haren edukia berretsi egiten dugu; hau da, hitzez hitz, erantzun zena:

Zangozako industrialdeko biribilgunea ixtea industrialdeko sustatzaileak egin beharreko jarduketara bat da.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez du sustatzen, eta ez du inolaz ere ezagutzen biribilgune hori ixtearekin lotutako desjabetze prozesurik, ez eta diru-laguntzarik ere".

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 17an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak informazioa eskatu du Zangozako industrialdeari buruz (PES-645/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Enpresako zuzendari nagusiaren uztailaren 6ko 1760/2010 Ebazpenaren bidez, Rocaforteko (Zangoza) industria eremuan eta haren luzapean sartzeko biribilguneak ukitutako eremuaren mugaketa onetsi zen, eta hark ukitutako titular, ondasun eta eskubideen zerrenda ere bai. Ebazpen hori interesdunei jakinarazi zitzaien, Zangozako iragarki-oholean egon zen eta argitara eman zen bai Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2010ko uztailaren 23an, 89. zenbakian), bai Diario de Navarran (hor ere 2010ko uztailaren 23an). Geroago, Enpresako zuzendari nagusiaren abuztuaren 25eko 1966/2010 Ebazpenaren bidez, behin betikoz onetsi ziren aipatutako proiektua eta hark ukitutako titular, ondasun eta eskubideen zerrenda; ukitutakoei jakinarazi zitzaien, eta argitara ere eman zen (Nafarroako Aldizkari Ofizialean 107. zenbakian eta irailaren 3ko Diario de Navarran).

Nasuinsak (sozietate onuradunak) hala eskatuta, Enpresako zuzendari nagusiaren irailaren 3ko 2001/2010 Ebazpenaren bidez, proiektuko okupazioaren aurreko aktak egiteko deitu zitzaien ukitutako ondasunen eta eskubideen titularrei; hain zuzen ere, 2010eko irailaren 28rako deitu zitzaien, eta argitara eman zen (Nafarroako Aldizkari Ofizialean 110. zenbakian eta irailaren 10eko Diario de Navarran eta Diario de Noticiasen). Enpresako zuzendari nagusiaren irailaren 8ko 2002/2010 Ebazpenaren bidez, Administrazioaren nahiz sozietate onuradunaren ordezkariak izendatu ziren aktak egiteko.

Gorago aipatutako datan, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearekin bat, okupazioaren aurreko aktak egin ziren; ukitutako titularretako bat joan zen, eta agertu ez ziren titularren aktak Fiskaltzari igorri zitzaizkion.

Gaur egun, biribilgunearen exekuzioak ukitutako finkak okupatuta daude; biribilgunearen obrak 2010eko urriaren 13an hasi ziren.

Estatuko 2010erako Aurrekontu Orokorretan (abenduarien 23ko 26/2009 Legea), 500.000 € jarri dira; hain zuzen ere, 20. atalean (Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa), 16. zerbitzuan (Industriako Zuzendaritza Nagusia), 422M Programan (Birmoldaketa eta Berrindustrializazioa), 765.

Kontzeptuan, Zangozak dinamizazio industrialera-ko dituen beharrei aurre egiteko .

Iruñean, 2010eko azaroaren 18an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak legegintzaldi honen amaierara arte abian jarriko dituen plan, proiektu eta ekimenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak legegintzaldi honen amaierara arte abian jarriko dituen plan, proiektu eta ekimenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 29ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak legegintzaldi honen amaierara arte abian jarriko dituen plan, proiektu eta ekimenei buruz (PES-646). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2008an, Gobernuak dokumentu bat onetsi zuen, zeinean jasotzen baitzen herritarrekiko kon-

promiso soziala 2007-2012 legegintzaldirako. Dokumentu horretan jasotzen dira kudeaketa-esparru desberdinetan legegintzaldi honetan gauzatuko diren jarduketak nagusiak, Gobernuak horretarako konpromisoa hartu baitu.

Gobernuak, gardentasunaren eta gizarteari kontuak ematearen mesedetan, erabaki zuen aipatu dokumentua Interneten, Nafarroako Atarian, argitaratzea, eta eguneratuta mantentzea, halako moduz non pixkanaka gehituko zaion ekin-tza bakoitzaren betetze-maila. Honekin batera doa gure departamentuari buruzko informazioa.

Departamentuak legegintzaldia amaitu arte jarraituko du programa garatzen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetze-ko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago Ágora Parlamentu Kudeaketan).

Galdera, gazteak nekazaritzan hasteko laguntza-eskarien kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du gazteak nekazaritzan hasteko laguntza-eskarien kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 29ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du gazteak nekazaritzan hasteko laguntza-eskarien kopuruari buruz (PES-647). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Honako hau da aurkezturiko eskarien kopurua:

2007ko ekitaldia: Jasotako eskariak, guztira: 66.

2008ko ekitaldia: Jasotako eskariak, guztira: 126.

2009ko ekitaldia: Jasotako eskariak, guztira: 95.

2010eko ekitaldia: Jasotako eskariak, guztira: 92.

Neurri hori, "nekazaritza-ustiatgien modernizazioa" deritzonarekin batera, Nafarroako Gobernuaren urte bakoitzerako gastu-aurrekontuko kontusail berean sartzen da. Beraz, ez dago berriazko gaikuntzarik laguntza-lerro horretarako. Dena den, bai Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak bai sektoreak berak ere lehentasunezko neurritzat hartzen dutenez, laguntza-espedienteok, "banako ebaluazio" izeneko sistemaren bidez izapidetuak, beti izaten dute aurrekontu eskuragarria.

Ondorioz, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Programaren aplikazioaldiko ezein urtetan ez da izapidetu gabe utzi laguntza jasotzeko eskubidea duen inolako espediente, kasuko kontusailean aurrekontu eskuragarririk ez izateagatik. Espediente bakoitzeko emandako batez besteko diru-laguntza 40.000 euro ingurukoa da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, "Kultura eskura" programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du "Kultura eskura" programari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 29ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Gobernuak zer balorazio egiten duen "Cultura sobre ruedas" programari buruz (PES 649). Hona hemen Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Zer balorazio egiten du Gobernuak programa hori dela eta?

Programa Alderdi Sozialistak aurkeztutako zuzenketa baten ondorio da, eta duen helburua da

Nafarroako elkarteek joateko modua izan dezatela formatu handiko espazioetan gauzatzen diren kultur jarduera jakin batzuetara, horrelakoak ezin baitira herri txikietan egin, eta garraioa erraztea horretarako. Programak ez du arrakasta handirik izan; izan ere, gaur egun, jende gehiena ikuskizun hauek bere kasa joaten da, eta ez taldean; eta taldean joaten bada, izaten da txango-pakete handiagoren barruan, non garraioa ere sartuta dagoen. Orain hogeitaz berrogei urte agian bai, baina gaur egun garraiobidea ez da problema Iruñera ikuskizun bat ikustera etortzeko; horretan ez da dudarik. Gaur egun, herritar gehienek beren garraiobideak dituzte, eta garraio publikoko sare on bat dago.

Zer elkartek egin dituzte eskariak?

Cascanteko Erretiratuen eta Pentsiodunen Kluba, Azagrako Alusfron Elkarteak, Larragako Zahar-etxea Zentroak.

Zein da horretarako eratu den kontusailaren betetze maila?

Azaroaren 19an, 0 € daude exekutatuta.

Azaroaren 19an, 1.400 € daude emateko guztira; horietatik, 1.000 € Azagrako Alusfron Elkartearentzat dira eta 400 €, berriz, Larragako Zahar-etxea Zentroarentzat.

Cascanteko Erretiratuen eta Pentsiodunen Kluba eginiko eskaria ezetsi egin zen, laguntza Senda Vivara eginiko txango baterako baitzen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, “Gazteentzako kultur bonoa” programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du “Gazteentzako kultur bonoa” programari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 29ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Gobernuak zer balorazio egin duen “Gazteentzako kultur bonoa” programaren inguruan, zenbat bono banatu diren guztira, hartzaileak non bizi diren eta zein den horretarako eraturiko kontusailaren betetze-maila. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Zer balorazio egiten du Gobernuak programa hori dela eta?

“Gazteentzako kultur bonoa” programaren helburua interesgarria eta positiboa da, baina ez du izan espero genuen harrera, bonoen banaketari

dagokionez. Horren arrazoi nagusia da galdera aurkeztu duen parlamentariak aipatzen dituen baldintzek, alegia, bonoa lortzeko ezarritakoek, ez dietela gazteei biderik ematen haiek gustuko dituzten ikaskizunetara joateko, hala nola sarrerarekin batera kontsumizio bat ematen den aretoetan egiten diren kontzertuak, edota CDak, bideojokoak, testuliburuak eta abar erosteko. Bestalde, bonoa erabiltzeko egin behar den erosketaren gutxieneko prezioa –20, 30 edo 50 euro– oso altua da; izan ere, ikuskizun edo liburu askoren prezioak horiek baino txikiagoak dira. Horretaz gain, Nafarroako liburu-denda txiki eta ertainak kanpoan geratu dira; hori dela eta, erosketak egiteko eremutik kanpo geratzen dira Nafarroako landa eremuak.

Zenbat bono eman dira guztira?

Eskatutako bonoak, guztira: 1.368

Zein herritan bizi dira bonoa jaso dutenak?

Iruñean jasotako eskaerak: 949

Etxera bidali diren eskaerak: 361

Tuterako bulegoan eginiko eskaerak: 18

Tafallako bulegoan eginiko eskaerak: 23

Lizarrako bulegoan eginiko eskaerak: 14

Altsasuko aterpetxean eginiko eskaerak: 2

Lekarozko aterpetxean eginiko eskaerak: 1

Zein da horretarako eratu den kontusailaren betetze-maila?

Azaroaren 19an, 750 euroko ordainketa izapidetzen ari da. Aurreko hilabeteetan betetako kopurua 2.445 eurokoa da; beraz, kontusailetik betetako gastu osoa 2.995 eurokoa izan da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Leitzako Plazaola geltokirako proiektua abian jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako Plazaola geltokirako proiektua abian jartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 29ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du, jakiteko noiz jarriko den abian Leitzako Plazaola Geltokirako proiektua eta zer kontusail erabiliko den horretarako eta zenbat diru jarriko duen Nafarroako Gobernuak proiektu hori gauzatzeko (PES-651). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Leitzako geltokiaren proiektua sartzen da Kultura eta Turismo Departamentuak Landa Ingurumeneko Departamentuari aurkeztu dion proposamenean, Nafarroako Landa Garapen Iraunkorrari buruzko Programan sar dezan. Programa hori Nafarroako Gobernuak onetsi behar du, eta ondoren Estatuko Gobernuarekin adostu behar da.

Zeharkako programa bat da, eta bertan konbinatzen dira ministerioen esku-hartzeak –landa garapenean eragina izaten duten politikak abian jarrita–, eta autonomia erkidegoen esku-hartzeak, bere eskumenen esparrukoak, betiere landa eremuetan eginen direnak. Landa Garapen Iraunkorrari buruzko Programa landa eremuetako planen

bidez gauzatzen da. Plan horiek autonomia erkidego bakoitzak prestatzen ditu. Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurunekeko Ministerioak koordinatuko ditu Estatuko Administrazio Orokorrek landa eremuetako plan bakoitzean egin beharreko esku-hartzeak.

2. 2010-2014 urteetan, Nafarroako Gobernuak 17,3 milioi euro eskuratu ahal izanen ditu Estatuko aurrekontu orokorretatik, landa eremuetako lau planetan jasotako jarduketak finantzatzeko. Foru Komunitateak ezinbestean osatu behar du finantzaketa hori beste 17,3 milioi euroekin, proposatutako eremuetako proiektu beretan edo beste batzuetan erabiltzeko.

3. Leitzako geltokiari dagokionez, Nafarroako Gobernuak beti agertu du interesa guzti hori lehengoratzeko; hori dela eta, abian jarri zuen bertako eraikin enblematikoena, geltokia, erabilera turistikorako zaharbertzeko proiektua.

Abian jarri zen lehen jarduketa egituraren sendotzea izan zen; horretarako, erabat berritu zen solairuen eta estalkiaren egitura, eta zulo guztiak zurajez estali ziren, urik sar ez zedin. Halaber, eraikinaren garaiera altxatu egin zen, estalkipeko solairua hobeto aprobetxatze aldera.

Eraikina prest geratu zen etorkizunean beste jarduketa batzuk egin eta erabilera anitzeko azpiegitura bat eraikitzeko. Hala, eraikin horretan kokatuko dira aterpetxe bat, eskualdeko produktuen saltoki bat, turismorako informazio gunea bat eta mendiko bizikleten zentro bat. Inbertsioa, guztira, 285.661 eurokoa izan zen.

Hain zuzen, etorkizuneko jarduketan proiektu hori da –aterpetxea, saltokia, informazio gunea eta mendiko bizikleten zentroa– Nafarroako Gobernuak Estatuari eginiko proposamenean jasotzen dena, eta, onesten bada, Nafarroako

Gobernuak berari dagokion zatiaren arabera egin beharreko inbertsioen kargura gauzatuko da.

Proiektua, 300.000 eurokoa, Produktu Turistiko-en Antolamendurako eta Garapenerako Zerbitzuari dagokion aurrekontuaren 6. kapituluko "Inbertsioak azpiegitura turistikoetan" izeneko kontusailaren kargura eginen da 2012 eta 2013 urteetan, halako moduz non, amaitutakoan, instalazioa Plazaolako Turismo Partzuergoari lagako zaion, hark ustia

dezan, trenbide berean zegoen Lekunberriko geltoki zaharrarekin egin den modu berean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Antsoingo Udalarari Ezkaba mendian lan batzuk egiteko hirigintza-obretako makineria erabiltzeko baimena ematean erabili diren arrazoi edo irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Antsoingo Udalarari Ezkaba mendian lan batzuk egiteko hirigintza-obretako makineria erabiltzeko baimena ematean erabili diren arrazoi edo irizpideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Antsoingo Udalarari Ezkaba mendian lan batzuk egiteko hirigintza-lanetako makineria erabiltzeko baimena ematean erabili diren arrazoi edo irizpideei buruz (PES-662). Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Oso daitekeena da proiektuan baso-erabilere-tarako proposatzen den makineria hirigintza-lanetarako ere erabiltzea; esate baterako, zapalgailu bat, motonibelagailu bat, etab. Batak ez du bestea kentzen. Nafarroako Gobernuak baso-irizpideak eta -jarraibideak erabili ditu lanak egin beharreko tokietarako, eta, betiere, ukitutako baso-sailen iraungarritasuna ziurtatu du. Irizpideok finkatuta daude, era berean, Antsoingo Udal-Mugartean

Ezkaba Mendia Leheneratzeko, Babesteko eta Kontserbatzeko Proiektuko dokumentuetan; proiektua Basartearen enpresak idatzi zuen. Proiektu hori, Antsoingo Udalak sustatua, aurkeztu zen oinarri hartuta urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege-dekretua, enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako Estatuko funtsa sortu zuena.

Proiektuko banakako prezioen tauletan, eta makineriari dagokionez, honakoak aipatzen dira: atzera-pala hidrauliko beldarduna; skiddera; traktore arrastagailu beldarduna; motozerra; prozesagailua; motonibelagailua; atzera-pala hidrauliko txikia, gomazko kateduna; autokargagailua; zapalgailu bibragailuduna; eta hormigoï-makina. Makineria hori da aurreikusita zegoena proiektuko lanak gauzatzeko. Lanak hauek ziren: baso-hobetzea pinudi helduan (baso-pistak eta azpiegiturak erreparatzea); baso-hobetzea, bigarren eta lehenbiziko bakanketaren bidez (baso-pistak eta azpiegiturak erreparatzea); hondakinak deuseztatzea, birrinduz; mendi-bide tradizionalak egokitzea (atzera-pala txikia), hain zuzen ere harrobietako bidea, gotorlekukoa eta hilerrikoa (atzera-pala txikia; bide-zorua ofitaz sendotzea); hormigoï aurrefabrikatuak jartzea kaminoetan; mendi-bide tradizi-onaletan seinaleak eta ekipamendua jartzea; eta Soroko izeneko alderdia hobetzea.

Honekin batera doa zuzendari nagusiak proiektua baimentzeko 2010eko ekainaren 17an emandako ebazpena. Udalaren obra-txostenak ez dauzkagu, ez baita Departamentuak diruz lagundutako obra bat.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

942/2010 EBAZPENA, ekainaren 17koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiarena, Antsoingo Udalari baimena ematen diona Antsoingo udal-mugaratean pinudiz osatutako basomasak hobetzeko, eta Ezkaba mendia leheneratzeko eta kontserbatzeko.

Antsoingo Udalak proiektua igorri du oinarri hartuta urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege-dekretua, enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako Estatuko funtsa sortu zuena.

Proiektuan jasotzen diren jarduketek helburu dute pinudiz osatutako basomasak hobetzea, eta Antsoingo iparraldean dagoen ingurua, Ezkaba mendikoa hain zuzen, leheneratzea eta kontserbatzea.

Oihanak Kudeatzeko Atalak emaniko txostenean adierazten da egin beharreko lanak honakoak direla: baso-hobetzea pinudi helduan; baso-hobetzea, bigarren eta lehenbiziko bakanketaren bidez (baso-hobetzeon helburua da amaieran bilakaera naturaleko pinudi heldu bat lortzea); mendi-bideak leheneratzea, espezieen landaketa; eta seinaleak eta ekipamenduak jartzeko jarduketak.

Txostena ikusirik eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen irailaren 3ko 124/2007 Foru Dekretuan esleituta ditudan ahalmenak erabiliz, .

EBATZI DUT:

1. Baimena ematea Antsoingo Udalari, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak dituen eskumenen esparruan, Antsoingo udal-mugaratean Ezkaba Mendia Leheneratzeko eta Kontserbatzeko Proiektuan jasotako lanak egiteko; lanak honakoak izanen dira:

- baso-hobetzea pinudi helduan; baso-hobetzea, bigarren eta lehenbiziko bakanketaren bidez.

- 3. blokearen leheneratzea, mendi-bide tradizionalak egokitzea, honako baldintza honekin:

=> existitzen diren mendi-bideak egokituko dira, eta ez da bide berriak irekiko.

- Berraztertu egin behar da landaketetarako zer espezie hautatu. Gomendioa da erresistentzia handiko espezieak sartzea; honakoak, nagusiki: *Sorbus domestica* eta *Prunus mahaleb* eta *Prunus avium* txertatua.

- Seinaleak eta ekipamendua jartzea.

- Iruñeko basozain nagusiari proiektuko lanak hasi izanaren berri emanen zaio (608-062649 telefonoa), jakinaren gainean egon dadin eta lanok kontrola ditzan.

2. Ohartaraztea ezen, baimen hau ematen bada ere, aplikatzekoa den berariazko legediak eskatzen dituen gainerako baimenak ere eskatu beharko direla.

3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen, eta espedientearen interesa dutenek, administrazio publikoek izan ezik, gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal dute, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendua, hilabete epean.

Administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabete epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epean.

Epeak ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

4. Ebazpen honen berri ematea Antsoingo Udalari, eskualdeko Basozaintzari eta Oihanak Kudeatzeko Atalari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 17an

Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia:
Andrés Eciolaza Carballo

Galdera, mendekotasuna balioetsi eta banakako laguntza plana egiten denetik lehenengo laguntzen ordainketa jasotzen denera batez beste iragaten den denborari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du mendekotasuna balioetsi eta banakako laguntza plana egiten denetik lehenengo laguntzen ordainketa jasotzen denera batez beste iragaten den denborari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 22ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du, honakoari buruz: mendekotasun gradua aitortzen denetik eta Banakako Laguntza Plana egiten denetik aitzina, laguntzen lehen epea ordaindu arte iragaten den batez besteko denbora (PES 641-10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, eta beste ezer baino lehen, esan behar da egindako galderak ez duela zehazki adierazten gizarte-zerbitzuen zorroko zein prestazioaren ebazpen-epeaz itauntzen den, nahiz eta testuaren irakurketatik deduzi daitekeen mendekotasun-egoeran diren pertsonentzako prestazio ekonomikoak hartu direla hizpide.

Prestazio horiek, jasota daudenak, hala da, gizarte zerbitzu orokorren zorroan, mendeko gisa balioetsitako eta izaera hori aitortu zaien pertsonentzakoak dira. Pertsona horietako bakoitzari dagozkion prestazioak banakako arreta-programa (BAP) batean jasotzen dira.

Aipaturiko gizarte-zerbitzuen zorroan zehazten dira Administrazioak prestazio horietako bakoitza izapidetzen dueneko epeak.

Eginiko galderak itxuraz aipagai hartu duen prestazio ekonomikoari dagokionez, hots, familiaren esparruko zainketetarako prestazioa, bost hilabeteko epea ezartzen da izapidetzerako, aurretiazko urratsak egin ondoren betiere, nola diren mendekotasun-egoeraren balioespena (zorroak hiru hilabeteko epea ezartzen du horretarako) eta bana-banako laguntza plana (hiru hilabete horretarako ere).

Espediente-kopuru handiaren eta kudeaketa-sistemak doitu beharraren kariaz, BAPetik ordainketa ebazteko batez besteko epea 5 hilabete eta 28 eguneko da gaur egun, aparte utzita Administrazioari egoztekoak ez diren arrazoiak direla medio berandutza gertatzen deneko kasuak.

Nolanahi ere, Departamentua neurriak hartzen ari da izapideak arintzeko, eta neurri horiek erabakigarri izanen dira aurki, epe hori laburragoa izateko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 19an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, giza kontsumorako hiltzen diren abereei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du giza kontsumorako hiltzen diren abereei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du giza kontsumorako hiltzen diren abe-

reei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1). Ulertzen da eskatutako informazioa dela abelburuei buruzkoa, espezieen arabera xehakaituta, eta ez arrazen arabera xehakaituta. Hiltzeko diren animalien arrazari buruzko informazioa abereekin batera bidaltzen da hiltegiara, "Elikagaien Kateari buruzko Informazioa" izeneko agirian, baina informazio horrek ez du garrantzirik osasunaren arloan; hori dela eta, ez da jasotzen Osasun Publikoko Institutuak prozesatzen duen informazioan.

Ondoko koadroan laburbilduta ageri dira eskatutako datuetatik Osasun Publikoko Institutuan jasota daudenak, hori baita Nafarroako Foru Erki-degoko hiltegien kontrol ofizialaren ardura duen erakundea.

Espeziea	2007. urtea	2008. urtea	2009. urtea	2010. urtea (*)
Behi-azienda	29.123	31.903	29.199	22.776
Ardi-azienda	546.881	514.874	418.501	296.668
Ahuntz-azienda	2.837	3.176	2.617	1.156
Txerri-azienda	581.460	600.920	544.103	378.987
Zaldi-azienda	303	3.711	4.563	4.650
Orein-azienda	7	64	54	115
Hegaztiak	28.403.462	29.360.651	37.334.356	30.890.810
Untxiak	2.022.452	2.175.570	1.878.642	1.634.905

(*) 2010eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean.

2). Aurreko koadroak eskatutako informazioa jasotzen du, 2010. urteari dagokionez, urriaren 31ra bitartekoa.

3). Europar Batasunak animalia jatorria duten elikagaien higienari buruz emandako erregelamenduei jarraikiz –apirilaren 29ko CE/853/2004 Erregelamendua eta apirilaren 29ko CE/854/2004 Erregelamendua–, giza kontsumorako hiltegi ofizialetan hiltzen diren abere guztiak kontrol ofizialaren menpe daude, eta kontrol ofizialeko al baitari baten aurrean bakarrik hil daitezke.

Horrenbestez, Nafarroako baimendutako hiltegietan hiltzen diren animalia guztiei egiten zaizkie osasun kontrolak. Kontrol horien edukia aipatu

erregelamenduetan zehaztuta dago, eta aldatu egiten dira hildako animalien espeziearen arabera.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak egiten ditu giza kontsumorako animalien kontrolak, animalien ekoizpenaren, ongizatearen eta garraioaren arloan.

4). Ondoko koadroan laburbilduta ageri dira eskatutako datuetatik Osasun Publikoko Institutuan jasota daudenak, giza kontsumorako egokitasunarekin zerikusia duten arrazoiak tarteko osorik edo zati batean konfiskatutako abere-erdiei buruzkoak.

Aipatu behar da informazioa hildako animalia-espezieei buruzkoa dela, eta ez arrazei buruzkoa; izan ere, lehenbiziko galderaren erantzunean esan bezala, animalia-arraza garrantzi sanitariorik gabeko informazioa da, eta, hori dela eta, ez da prozesatzen.

Konfiskazioei buruzko dokumentazioari dagokionez, animaliak eta haien produktuak giza kontsumorako egokiak izatearekin zerikusia duen konfis-

kazio edo gertakari bakoitza jaso egiten da, hiltegi-etako kontrol ofizialaren ardura duten ikuskatzaileek animalien banakako, taldekako edo zatikako konfiskazioei buruz egiten dituzten aktetan. Akta kopurua oso handia da, ondoko koadroetako datuen arabera eginiko jarduketa kopurua ikusita ondoriozta daitekeenez; hori dela eta, aktak ez doaz erantzunarekin batera, kontsultatu badaitezke ere.

Nafarroan konfiskatutako abere-erdien kopurua

ESPEZIEA	2007. urtea	2008. urtea	2009. urtea	2010. urtea (*)
Behi-azienda	100	90	90	72
Ardi/ahuntz azienda	3.311	3.753	894	697
Txerri-azienda	1.084	1.213	948	1.881
Zaldi-azienda	1	1	4	3
Untxiak	3.343	6.789	5.921	4.113
Hegaztiak	350.653	369.280	423.643	257.320

(*) 2010eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean.

ESPEZIEA	2007. urtea	2008. urtea	2009. urtea	2010. urtea (2)
Behi-azienda	5.033	5.067	6.573	4.419
Ardi/ahuntz azienda	71.866	54.567	58.984	46.950
Txerri-azienda	128.721	131.067	119.548	76.970

(1) Zatikako konfiskazioa da erraiak, mingaina edo abere-erdiaren beste zati batzuk kentzea, zati horiek giza kontsumora bideratzea saihesteko.

(2) 2010eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, iruzurraren aurkako borroka hobetze aldera arau indardunak aldatzeko egin diren proposamenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du iruzurraren aurkako borroka hobetze aldera arau indardunak aldatzeko egin diren proposamenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Ogasun Publikoaren Ikuskapen Zerbitzuak iruzurraren aurkako borroka hobetzeko eginiko ekarpenei buruz (PES-657). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Zerga Ogasunean, zerbitzu guztiek egiten dituzte proposamenak iruzurraren aurkako borroka hobetzeko; jotzen da, izan ere, borroka horretan, modu batean edo bestean, denak daudela inplikaturik. Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko 2008-2012 Planaren prestaketa izan zen horren adierazgarri nabarmenena. Plan hori prestatzeko, barne-proposamenak bildu eta zortzi hilabeteko bateratze-lana egin zen; proposamen horietan, logikoa denez, protagonismo berezia izan zuten Tributuen Kontrolerako Zuzendaritzak eta, bereziki, Ikuskapen Zerbitzuak.

Laburbilduz, eta arau garrantzitsuenetan arreta jarrita, hona hemen Ikuskapen Zerbitzuak arau horietako zeini buruz egin dituen proposamenak.

2004. urtea

19/2004 Foru Legea, abenduaren 29koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa (157. NAO, 2004-12-31koa).

2005. urtea

31/2005 Ebazpena, urtarrilaren 21koa, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak emana, 2005eko Ikuskapen Planaren oinarri diren irizpide orokorrak onesten dituen (19. NAO, 2005-02-14koa).

19/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa (156. NAO, 2005-12-30koa).

2006. urtea

37/2006 Ebazpena, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak emana, 2006ko Ikuskapen Planaren oinarri diren irizpide orokorrak onesten dituen (18. NAO, 2006-02-10koa).

18/2006 Foru Legea, abenduaren 27koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa (157. NAO, 2006-12-31koa).

2007. urtea

90/2007 Ebazpena, otsailaren 1koa, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak emana, 2007ko Ikuskapen Plana oinarritzen duten irizpide orokorrak onesten dituen (20. NAO, 2007-02-14koa).

2/2008 Foru Legea, urtarrilaren 24koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa (12. NAO, 2008-01-26koa).

2008. urtea

104/2008 Ebazpena, otsailaren 4koa, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak emana, 2008ko Ikuskapen Plana oinarritzen duten irizpide orokorrak onesten dituen (19. NAO, 2008-02-11koa).

22/2008 Foru Legea, abenduaren 24koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa (159. NAO, 2008-12-31koa); zehazki, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 68., 69. eta 77. artikuluetan eginitako aldaketak, hau da, faktura faltsuak luzatzea arau-hauste berariazko bat jotzearekin zerikusia dutenak.

Nafarroako Gobernuaren erabakia, 2008ko azaroaren 3koa, Nafarroan Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko 2008-2012 Plana onetsi zuena. Ikuskapen Zerbitzuak proposatu zituen informazioaren eta ikerketaren arloko neurriak, beste eragile batzuekiko lankidetzak, zerga-kontrola, araudia, prozesuak eta sistemak, plangintza eta giza baliabideak.

2009. urtea

71/2009 Ebazpena, otsailaren 3koa, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak

emana, Zergen Kontrolerako 2009ko Plana gidatzen duten irizpide orokorrak onesten dituen (19. NAO, 2009-02-13koa).

87/2009 FORU AGINDUA, ekainaren 8koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana. Horren bidez ezartzen da zer hedadura, baldintza eta iraupen izanen duen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ikuskapena egiteko Iruñeko Udalak bereganatutako eskuordetzak, udal kuotei dagokienez, eta zer hedadura, baldintza eta iraupen izanen duen Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zerga horren ikuskapena egiteko udal horrekin ezarritako lankidetzak, lurraldeko eta nazioko kuotei dagokienez (80. NAO, 2009-07-01ekoa).

17/2009 Foru Legea, abenduaren 23koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko (160. NAO, 2009-12-29koa); zehazki, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko honako artikuluetan eginiko aldaketak: 66.ean (delitu fiskala), 67., 68. eta 77.ean (zenbait arau-hauste larri), 97.ean (salaketa publiko), 103., 131., 135., 138. eta 139.ean (Administrazioari laguntza emateko beharra; tributuen ikuskapenerako ahalmena; akten edukia; ikuskapen prozeduraren hasiera eta jarduketak zabaltzea, eta horietarako epeak).

2010. urtea

86/2010 Ebazpena, otsailaren 1ekoa, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak emana, Zergen Kontrolerako 2010eko Plana gidatzen duten irizpide orokorrak onesten dituen (19. NAO, 2010-02-10ekoa).

8/2010 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta horri lotutako errolda zehatz batzuk arautzen dituen (32. NAO, 2010-03-12koa).

104/2010 Foru Agindua, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoaren egitura aldatzen duena, bulegoen mailan; Informazioa Eskuratzeko Bulegoa kendu eta Planigintza eta Ikerketarako Unitate Administratiboa sortu zuen.

56/2010 Foru Dekretua, irailaren 13koa, Nafarroako Zerga Ogasuneko zerga agenteen eginkizunak finkatzen dituen (118. NAO, 2010-09-29koa).

Foru dekretu proiektua, hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpena arautzen duena eta tributu-edukia duten beste arau batzuk aldatzen dituen.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektua; zehazki, Tri-

butuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko honako artikuluetako aldaketak: 27., 57., 58., 103., 131., 132. eta 133. artikulua.

Hona, jarraian, Ikuskapen Zerbitzuaren proposamenez eginiko aldaketa garrantzitsuenak:

35/2003 Foru Legea, abenduaren 30ekoa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko.

Foru lege horretako 6. artikulua testu berria ematen die Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko zenbait artikuluri.

Besteak beste, 104. eta 105. artikuluei. Kontuan hartzen baditugu, batetik, maiatzaren 21eko 12/2003 Legea, terrorismoaren finantzaketa prebenitzeari eta blokeatzeari buruzkoa eta, bestetik, uztailaren 4ko 19/2003 Legea, kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari eta kapitalen zuriketaren aurkako zenbait prebentzio neurri buruzkoa, zeinaren bidez aldatu baitzen, Europako 2001/97 Zuzentzura egokitze aldera hain zuzen, abenduaren 28ko 19/1993 Legea, kapital zuriketaren prebentzio neurri batzuei buruzkoa, komenigarria eta egokia da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean bi aukera jasotzea: bata, Nafarroako Zerga Ogasunak modua izatea tributu-datuak lagatzeko, kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioarekin zerikusia duten gaitan; bestea, Zerga Ogasunak tributu-garrantzia izan dezaketen datuak eskuratu ahal izatea Diru arloko Arau Hausteei eta Kapital Zuriketari Aurrea Hartzeko Batzordearen Zerbitzu Betearazletik.

19/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko.

Foru lege horretako 6. artikulua testu berria ematen die Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko zenbait artikuluri.

65. bis artikulua gehitzea III. tituluko ("Tributuak") V. kapituluaren ("Tributu zorra") 5. sekzioari ("Bermeak").

Asmoa da, batetik, iruzurraren aurka aplikatu daitezkeen neurrien (kautelazkoak direnak eta ez direnak) arautze orokorra bultzatzea, eta jasotzea, hala, zer kasutan egonen den modua neurriok aplikatzeko kudeaketako eta ikuskapeneko prozeduren esparruan; eta, bestetik, modu eraginkoragoan kontrolatzea tributu-zentsuak eta erregistroak, eta, horien artean eta modu berezian, Europako Erkidegoko Barneko Operatzaileen Erregistroa eta Esportatzaileen Erregistroa.

Iruzur fiskalaren mekanismoa, balio erantsiaren gaineko zergan gehienbat, nahiz eta beste tributuei neurri batzuetara ere zabaltzen den, sarritan oinarritzen da zenbateko horien iruzurrezko erabileran eta zentsu eta erregistro horietarako sarbide ez-zilegian.

18/2006 Foru Legea, abenduaren 27koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributuei neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

Foru lege horretako 5. artikulua testu berria eman zien Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko zenbait artikuluri.

27.2 artikuluarik bigarren lerroka bat gehitu zitzaion, non xedatu baitzen erregelamendu bidez zehaztuko zela erregistro liburuak aldizka eta baliabide telematikoen erabiliz zein kasutan aurkeztu behar ziren.

Beraz, ondorio hori lortzeko arauak erregelamendu bidez zehaztuko zirela ezarri zen. Asmoa da tributuei kudeaketa eta -ikuskapena erraztea bitarteko telematikoen ematen dituzten aukerak aprobetxatuz, erregistro-liburuak bitarteko telematikoen bidez aurkezteak erraztu egiten baitu tributuaren arloko egiaztapena.

Tributu-betebeharrak dituenak erregistro-liburuak modu telematikoan aurkezteak Administrazioari aukera emanen dio datuak modu informatikoan tratatzeko eta bere artxiboetan duen informazioarekin konparatzeko. Modu horretan, hobetu egiten dira egiaztatze-metodoak, eta egiaztatze-lanak azkarrago egiten dira.

Bestalde, erregistro-liburuak modu telematikoan aurkezteko betebeharrak erlazioan eta koordinatu beharra dago 347. aitortze-eredua aurkezteko behararekin (hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortzea) eta 390. aitortze-eredua aurkezteko behararekin (balio erantsiaren gaineko zergaren urteko laburpena). Aitortze horiek erregistro-liburuaren aurkezpen telematikoen osagarri izan daitezke, edo, etorkizunean, aurkezpen telematikoen ordeztu ere egin ditzakete aipatutako aitortzeak.

2/2008 Foru Legea, urtarrilaren 24koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributuei neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

Foru lege horretako 4. artikulua 70.1 artikulua aldatu eta xedapen gehigarri bat gehitu zuen.

Lehenbiziko kasuan, aldaketa bat sartu zen arau-hauste aringarritik eta larriingarritik diru-isunak jartzeko eskumena zuten organoek zegoenez.

Hala, diru-isunak arau-hauste aringarritik izan edo arau-hauste larriingarritik izan, zehapena jartzeko eskumena izango du tributuei-likidazioko administrazio-egintzak emateko organo eskudunak edo, hala badagokio, zehapen prozedura hasi duen organoaren goikoak.

Era berean beste hau ere zehaztuta gelditu zen: zehapen-prozedura hasi edo kitatzeko organo eskudunak dira eskumen hori ezarrita dutenak antolamendu arauetan, zergak aplikatzeko prozedura arauetan, zehapen prozeduraren arauetan edo kasuan kasuko zerga arautzearen arauetan. Hau da, igorpen bat egiten da antolamendu-arauek kasuan-kasuan adierazten dutenera; alegia, Nafarroako Zerga Ogasuna izeneko erakunde autonomoaren antolamendu-arauek, Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendukoak, Diru-bilketaren Erregelamenduko arauak eta zehapen-prozedurakoak.

Xedapen gehigarriari dagokionez, hau da, Ogasun Publikoaren kontrako delituengatik erantzukizun zibilaren ordainarazpenari dagokionez, aldaketa garrantzitsu bat egin zen ordura arteko egoerarekin alderatuta. Ogasun Publikoaren kontrako delituengatik kondena-epaiek berekin darma Administrazioari kalte-ordaina eman beharra, hau da, ordaindu gabe utzitako zerga-zor oso ordaindu behar da, gehi berandutza interesak. Hauek dira exijitzen ahalko diren interesak, eta ez, ordea, interes prozesalak, hots, lehen auzialdiko epaia ematen denetik sorrarazten direnak.

Erantzukizun zibilaren exekuzioa egiten bada Prozedura Zibileko Legeko arau orokorrak aplikatuz, lege hori aplikatzen baita Prozedura Kriminaren Legearen osagarri, zailtasun handiak sortzen dira exekuzio hori gauzatzeko; zailtasunak honakoetan: prozeduraren lastertasunean, jabetza nahitaez besterentzeko prozedura judizialeko jarduketan jarraipenean, eta lortutako diru-kopuruekin gauzatu beharreko diru-sarreretan.

Erantzukizun zibila ordainarazteko Zerga Administrazioaren diru-bilketarako organoek modua baldin badute premiamendu-prozedura erabiltzeko, abantailak ugari dira, hala kobratze-aukerei dagokionez, nola organo judizialei lan-zama kentzeari dagokionez, horrelako exekuzioek, oso zenbateko handikoak baitira normalean, lana ematen dute-eta.

22/2008 Foru Legea, abenduaren 24koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributuei neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

6. artikulua Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean beste arau-hauste larri bat sartzen du: fakturak edo ordeztu agiriak luzatzea datu faltsuekin edo faltsututakoekin.

"Arau-hauste larriak" 68. artikuluan jasotzen dira, eta arau-hauste horien artean sartu zen aipatutako arau-hauste berria.

69. artikulua ("Zehapen motak") aldatu, eta jasota gelditu zen arau-hauste larriak zehatuko direla arau-haustea eragin duten eragiketa guztien zenbatekoaren 100eko 75etik 150era arteko diruzko isun proportzionalarekin.

Azkenik, agiri faltsu edo faltsutuak erabiltzea irizpide bat denez mailakatzeko 71. artikuluan ezarritako zehapenak, 71. artikulua ere aldatu egin behar izan zen, adierazteko mailakatzeko irizpide hori bakarrik aplikatuko dela baldin eta faktura faltsu eta abarren erabilera berez ez bada foru legean aurreikusitako arau-hauste larria.

17/2009 Foru Legea, abenduaren 23koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzekoa.

5. artikulua Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren agindu batzuk aldatzen ditu.

– 68.c) artikuluan arau-hauste larri berri bat jasotzen da: zerga itzulketak bidegabeki eskatzea, autoliquidazioetan edo eskaeretan datu aipagarriak eman gabe utziz edo datu faltsuak emanaz, diru-itzulketa lortzen ez bada ere. Laburbilduz, arau-hauste larritzat jotzen da zerga itzulketak bidegabeki eskatzea (diru-itzulketa lortzen ez bada ere), betiere ondoko bi inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

a) Autoliquidazioetan datu aipagarriak eman gabe uztea.

b) Datu faltsuak sartu izana autoliquidazioetan edo eskaeretan.

– Beste lerrokada bat gehitu zitzaion 68.d) artikuluari; hain zuzen ere, zehaztapen bat gehitu zitzaion artikuluko horretako arau-hauste larriari (kontu-sail positibo edo negatiboak edo tributuen kredituak bidegabeki frogatzea, etorkizuneko aitortpenen oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu ahal izateko).

Arau-hauste larria izanen da oker aitortzea errenta garbia, jasanarazitako kuotak, kendu beharreko kuota edo kopuruak edota zergaldi bateko zerga pizgarriak, nahiz eta ez dirurik utzi ordaindu gabe edo ez jaso bidegabeki diru-itzulketaren bat, baldin eta egiaztapen- edo ikerketa-prozedura batean konpentsatu diren diru-kopuruak badira etorkizuneko konpentsatzeko, kentzeko edo aplikatzekoak.

Hau da, ez da beharrezkoa zerbait ordaindu gabe uztea edo diru-itzulketaren bat bidegabeki

jasotzea; arau-hauste larria izanen da oker aitortzea zein izan diren errenta garbiak, jasanarazitako kuotak, kendu beharreko kuota edo kopuruak edota zergaldi bateko zerga pizgarriak; eta arau-hauste larria izanen da, nahiz eta ez gutxiago ordaindu edo ez jaso bidegabeki diru-itzulketaren bat, baldin eta ikuskapen-prozedura batean konpentsatu diren diru-kopuruak (errenta garbiak, jasanarazitako kuotak, kendu beharreko kopuruak) etorkizuneko konpentsatzeko edo kentzeko badira.

– Testu berria eman zitzaion 76.1 artikuluari, araututa uzteko zer zehapen jarriko zitzaion 68.c) artikuluko bigarren lerrokadan ezarritako arau-hauste berriari: tributuen itzulketak eskatzea bidegabeki. Zehapenaren zenbatekoa izanen da bidegabeki eskatutako diru-kopuruaren ehuneko 15ekoa.

– 77.1. artikulua aldatu zen. Aldaketa nagusia da argitzen duela 68.d) artikuluko arau-hauste larri berriari, oker zehaztutako edo frogatutako kopurua izanen dela errenta garbiaren edo jasanarazitako kuoten gehitzea, edo kendu beharreko kopuruaren edo kuoten gutxitzea edo zerga pizgarrien gutxitzea, kasuan kasuko zergaldiari dagozkionak.

– 97. artikulua testua, salaketa publikoari buruzkoa, egokitu egin zen. Bi berrikuntza sartu zituen:

a) Salaketa ez dela espediente administratiboa sartuko.

b) Salatzaileri ez zaiola salaketaren emaitzaren berri emanen.

– 103.1 artikuluko 1. lerrokada aldatu zen. Zerga Administrazioari datuak eman behar diren barruan sartzen da tributudunak bere betebeharrak betetzearekin zerikusia duten datuak eman beharra ere.

– 118.4. artikuluko 2. lerrokadari testu berria ematen zaio. Aldaketa horren helburua da kautela-neurriak malgutasun handiagoz hartu ahal izatea tributuen prozeduren esparruan (ikuskaketakoak edo diru-bilketakoak normalean). Orain arte, aipatutako kautela-neurriek sei hilabete bakarrik iraun zezaketan, eta ikusi da askotan epe hori ez dela aski. Testu berriarekin, modu arrazoituan, beste sei hilabete luza daitezke kautela-neurriak.

– 131. artikulua aldatu eta hiru aldaketa azpimarragarri sartu ziren.

a) 1. idatz-zatian, dokumentu edo fitxategi informatikoen azterketari dagozkion ikuskapen-ahalmenak arautzen dira. 102. artikuluko arauak ekarri (edozein tributuen prozedurari aplikatu dakizkioke), modernizatu eta zabaldu egin dira, modu partikularizatuan aplikatu ahal dituzten tributuen ikuskaritzak.

b) 2. idatz-zatian, zehaztu egiten da tributudunaren adostasuna beharko dela, edo epailearen baimena, baldin eta konstituzionalki babestutako egoitza batean sartu nahi bada, ez edozein egoitzatan.

c) 3. idatz-zatian, ikuskatua izaten ari denak ikuskatze-jarduketak gauzatzen diren bitartean dituen betebeharrak zehazten dira.

– Beste idatz-zati bat gehitzen zaio 135. artikuluari, 4.a. Idatz-zati horretan gehitu zen ikuskapen-aktetan tributudunek onartutako gertakariak egiazkotzat joko direla, eta horiek zuzentzeko beharrezkoa izanen dela egitatezko akatsa egin izanaren froga.

– Testu berria eman zitzaion 138. artikuluari. Berrikuntza nagusiak hauek dira:

a) 1. idatz-zatian, ikuskapen-prozeduraren hasiera arautu zen: ofizioz edo tributudunak eskatuta (azken egoera horretan, 3. idatz-zatiko kasuetan).

b) 2. idatz-zatian xedatzen da ezen, kasu zehatza hobeto ezagutu eta ikuskaketa-prozedura abian jartzea komeni den edo ez erabakitze aldera, prozedura horren aurretik egiaztatzeko eta baiestekeo jarduketak egiten ahalko dira. Jarduketa horien eraginak ongi zehazte aldera, adierazten da egiten diren jarduketak ez direla errekerimendu administratibotzat joko 52. artikulua 3. idatz-zatian aurreikusitako ondorioetarako, hau da, epez kanpo ordaintzeagatik ezarritako errekarquetarako.

c) 3. idatz-zatian adierazten da ezen, ikuskapen-jarduketak partzialak izatetik orokorrak izatera pasatzeko, eskaera egin eta sei hilabeteko epea izanen duela Zerga Administrazioak jarduketan irismena handitzeko edo ikuskapen orokorrari hasiera emateko. Berrikuntza da sei hilabeteko epe hori ez betetzeak berarekin ekarriko duela ikuskapen partzialeko jarduketek (hasita daudenean) ez dutela preskripzio epea etenen tributu eta zergaldi berbera orokorki egiaztatzeko eta ikertzeko.

– 139. artikulua aldatu egin zen, non ikuskaketa-jarduketan gehienezko denbora arautzen baita.

Honakoak izan ziren aldaketak:

a) Epearen kontaketarako, kontuan hartu beharreko data izanen da ikuskatze-jarduketan ondoriozko egintza administratiboa jakinarazitako data. Horri dagokionez, hau zehazten da: jakinarazteko betebeharra bete dela ulertzeko eta ebazpenerako epea zenbatzeko, aski izanen dela frogatzea ebazpenaren testu osoa jakinarazteko saiakera bat egin dela.

b) Ikuskapen jarduerak sei hilabetez eteten badira tributudunari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, edo prozeduraren iraupen-epea ez bada betetzen (hamabi edo hogeita lau hilabete), aurretik ezarrita zegoen ondorioari beste ondorio bat gehitu zitzaion; honakoa, hain zuzen: prozedura hasten denetik jarduketak berriz ere abian jarri arte egiten diren ordainketak borondatezkotzat hartuko dira (eta, beraz, 52.3 artikuluko errekarquetak izanen dituzte, baina ez ordea zehapenak), eta borondatezkotzat hartuko dira, halaber, iraupen-epea pasatu eta behin prozedura hasita dagoela egiten direnak, baldin eta prozedurako lehenbiziko jarduketa gauzatu gabe badago.

c) Erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari helarazten bazaio edo espedientea Fiskaltzari igortzen bazaio, justifikatuta dagoela joko da jarduketa horien epearen zenbaketaren etena, eta epea luzatzeko arrazoia dela ere bai (hamabi hilabetetik hogeita laura), baldin eta prozedura administratiboak aurrera jarraitu beharko balu 66. artikuluko 6. idatz-zatian aipatzen diren arrazoietako bat dela medio: epai irmoa, non ez den delitu zantzurik aurkitu; jarduketan largespena edo artxibatzea; edo Fiskaltzak espedientea itzultzea.

d) Ebazpen judizial edo ekonomiko-administratibo batek edo Arbitraje Batzordearen erabaki batek ikuskapen jarduketan atzeraeragina agintzen duenean, horiek epe honetan bukatuko dira: jarduketak atzera eramaten direnetik artikuluko honen 1. idatz-zatian adierazitako epea bukatzen den arte, edo sei hilabetez, baldin eta beste epea laburragoa bada. Ebazpena edo erabakia beteazteko eskumena duen organoak espedientea jasotakoan hasiko da zenbatzen epe hori.

Hori beste prozedura administratibo batzuetan ere aplikatuko da; hain zuzen ere, epea luzatu ondoren, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunera pasatu denean edo espedientea Fiskaltzara bidali denean eta aurrera jarraitu behar dutenean, 66. artikulua 6. idatz-zatian adierazitako arrazoietako bat gertatzeagatik: epai irmoa, non ez den delitu zantzurik aurkitu; jarduketan largespena edo artxibatzea; edo Fiskaltzak espedientea itzultzea.

Azken batean, esan behar da Ikuskapen Zerbitzuak eginiko proposamen ia guztiak Nafarroako Parlamentura igorritako foru lege proiektuetan jaso direla edo, bestela, Nafarroako Gobernuak bere egin eta gauzatu egin dituela kasuan kasuko foru dekretuetan, foru aginduetan edo erabakietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, “ezkutuko ekonomia” deitutakoarekin lotutako datu eta ehunekoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du “ezkutuko ekonomia” deitutakoarekin lotutako datu eta ehunekoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du ezkutuko ekonomiari buruz (PES-658). Hona

hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez du inongo azterketa teorikorik egin ezkutuko ekonomiari buruz. Askotan esan den bezala, nahiago izan du ahaleginak bildu eta ezkutuko ekonomia pertsegitzea. Hala, arreta jarri dugu iruzur fiskala egiten ari daitezkeen zergadunen azterketa, detekzio eta hautaketan. Zergadun horiek zerga-kontrolerako planetan sartzen dira.

Horri buruz dauzkagun zenbatekoak dira urtero Nafarroako Parlamentuan aurkezten direnak, Iruzur Fiskalaren aurkako Planaren emaitzen barruan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, “Nafarroako zainzuria” berariazko deitura suspertzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du “Nafarroako zainzuria” berariazko deitura suspertzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du “Nafarroako zainzuria” berariazko izendapena berreskuratzeari buruz (PES-661). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Krisi-egoera batean, sistematikoki gertatu ohi da gama altuko produktuen kontsumoaren beherakada bat, normalki prezio handiagoak izan ohi baitituzte beste batzuek baino, kategoria berekoak direnak baina kalitate, jatorri, tipizitate, aurkezmolde eta abarreatatik nolakotasun edo bereizgarri berberak ez dituztenak.

Alde horretatik, ikusi da ezen “Nafarroako zainzuria” adierazpen geografiko babestuaren estalpenko produktuari kalte bereziki handia egin diola oraingo krisi ekonomikoak.

Ingurugiro honetan, korapilatsua gertatzen da “Nafarroako zainzuria” delakoaren defentsa, kalitate berezigarriko bestelako deitura batzuen beza, zeren eta haiek daukaten salneurri-aldea oztopo baita kontsumorako, eta operadoreei (nekazariak eta eraldaketa-industriak) zaila zaie alde hori beren gain hartzea emaitza-kontuetan, prezioak horretarako jaitziz produktu estandarren (nazionalen nahiz inportatuen) pareko mailetara.

“Nafarroako zainzuria” adierazpen geografiko babestuaren kasuan, aipaturiko kontsumo-beherakadaz gain, beste problema batzuk ere badira tarteko, hala nola, besteak beste, inportaturiko produktuek eginiko lehia, lanesku egonkor eta kualifikatua kontratatzearen zailtasuna eta uzta-bilketaren kostua.

Zainzuri-ekoizpenaren jarraitasuna ziurtatzearen, eta bereziki adierazpen geografiko babestuaren estalpean ekoiztuarena, bai eta adierazpen geografiko babestuak berak produktua sustatu eta defendatzeko duen potentzialtasunari eustearren ere, zenbait lan-ildo jorratzen ari dira, oinarritzko bi helburu dituztenak:

- Merkatu-zatia handitzea edo, gutxienez ere, mantentzea, bai hedabideetako eta merkatuetako presentzia areagotuz, bai ezaguntasuna areagotuz.

- Ekoizpen- eta eraldaketa-jardueren errentagarritasuna hobetzea.

Bi helburu horiek elkarlotura estua daukate, ezinezkoa baita errentagarritasuna lortzea ez badago merkatu-eremu, eta ezinezkoa da merkatuaren ustezko eskaria asetzea baldin eta merkatuak ez badie errentagarritasunik ziurtatzen kate-begi guztiei.

Ildo bakoitzean jarduera-fronteak irekita dauzkagu, oinarri gisa harturik Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta bere enpresa publikoek adierazpen geografiko babestuko kontseilu arau-emailearekin eta operadoreekin berekin eginiko elkarlana, beren ordezkaritza-erakunde bidezkoa (Consebro, UCAN, gehieneko ordezkaritza duten lanbide-erakundeak eta abar), bai eta, are, Nafarroako Gobernuaren beste departamentu batzuen partaidetza ere.

Lehenbiziko ildoan, ekintzak honako hauetan oinarritzen dira:

1. Sustapen-neurriak, publizitatea eta ekintza koordinatuak ICANen, kontseilu arau-emailearen eta sektorearen artean, interesekoak diren fronte guztietan jardunez, kasu bakoitzerako aproposak diren tresnak erabiliz: azoketan eta ekitaldietan parte hartuz, hedabideetan publizitatea eginez, babesletza-ekintzen bidez, banatzaile handi eta ertainekin hitzarmenak sinatuz, bai eta Reyno Gourmet markaren abaroan toki nabarmena esleituz.

2. “Nafarroako zainzuria” adierazpen geografiko babestuaren kontseilu arau-emailearentzako laguntzak, kalitatezko nekazaritza-elikagaien sustapena eta publizitatea egiteko Estatu-mailako laguntzen deialdietatik Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan kudeatuak diren enparruan.

3. Produktua fresko merkaturatzearen garapena sustatzea.

4. Produktu eraldatu berrien garapenari bultzada ematea (ontziratzeak, produktu hoztuak, plater prestatuak eta abar), dela enpresaren beraren berrikuntzaren esparruan, dela ikerketa-guneekiko hitzarmenen bitartez (Elikagai-segurtasun eta -teknologiaren Zentro Nazionala, unibertsitateak eta abar).

5.- Lanbidearteak bokazio duten entitateekiko (Prodecasa) finantzaketa-hitzarmenak, zainzuri freskoaren nahiz eraldatuaren kontsumoa saltokian sustatu eta dinamizatzeko ekintzak egiteko.

6. Europar proiektu kofinantzatuak laguntzea Europar Batasunaren barreneko publizitatearen eta sustapenaren alorrean, sustatzaile den lanbide-erakundearen (UAGN-Prodecasa) jarduketak kontseilu arau-emaitzarekin eta ICANekin koordinatuz.

7. Iruzurra kontrolatu eta zigortzeko jarduketak indartzea, azpimarra berezia jarriz inportaturiko produktuetan, Kontsumo Zerbitzuarekin eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin koordinatuta.

Bigarren ildoan, ekintzak honakoan oinarritzen dira:

1. Plantazioetan eginiko inbertsioetarako laguntza finantzarioa, beste labore batzuei dagozkien gutxieneko betekizunak murriztuz.

2.- Xede gisa eraldaketa eta merkaturatzea duten inbertsioetarako laguntza finantzarioa, laguntza-baremoa alde bitatik indartuz: bai produktuari dagokionez, bai adierazpen geografiko babestuko operadore izateari dagokionez ere.

3.- Barietateen arloko hobekuntza teknikoko programak garatzea, uzta-bilketa-prozesuak eta kalitatearen mantentzea optimizatzen dituzten

plastikoak erabiltzea, plantazio-dentsitateak, uzta-bilketako aldiak, ureztaketa lokalizatuko eta ongarriztapeneko metodologia berriak aplikatzea.

4.- Programa berriak garatzea, negutegiko labore behartuaren sistemak erabiliz zainzuri freskoa sasoz kanpo (udazkenean eta neguan) produzitzeko.

5. I+G+Bko inbertsio-proiektuei laguntzea, jarduera hauetarako Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren baitako sostengu-planen bidez.

6. Zainzuria nabarmentzeko beste bide batzuen aldeko apustua, hala nola ekoizpen ekologikoa, integratua eta artisautzakoa, egiten duten ekoizle eta prestatzaileentzako berariazko laguntza.

Laburbildurik, hartutako neurriekin apustu egiten da Nafarroako zainzuriaren sektorearen lehiakortasuna areagotzeko eta merkatuetako presentziari eta ezaguntasunari bultzada emateko, bereizkuntzan jarriz azpimarra. Dena den, ez da komenigarritzat jo diru-laguntzetan oinarrituriko neurriak ezartzea ustialekuen edo industrien funtzionamendu-gastuetarako eta era horretan beren errentak berdintzeko, zeren eta horrelako neurriak eraginkorrak ez direla jadanik frogatu baita iraganean, eta sektorearen nahiz ekoizpenen hazkunde orekagabeak eragiten baitituzte, merkatuak har dezakeenaren aldean; eta horrek, bere txandan, lehiakortasunik eta errentagarritasunik gabeko egoerak beharrik gabe iraunarazten ditu eta, hala, sektorearen garapena eta hura testuinguru berriei moldatzea ezindu edo oztopatzen da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, 2012 Batzorde antolatzaile eta zientifikoaren lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Paula Kasares Corrales andreak galdera egin du 2012 Batzorde antolatzaile eta zientifikoaren lanei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Paula Kasares Corrales andreak galdera egin du 2012 Batzorde antolatzaileak eta zientifikoak urte honetan eginiko lanei eta hurrengo seihilekorako lan programari buruz (PES-654). Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Batzorde antolatzaileak 2009ko urtarrilaren 13an egin zuen lehen bilera. Batzorde zientifikoa, berriz, 2009ko ekainaren 2an eratu zen.

Lehen urte honetan, bi batzorde horiek egin dutena izan da, batez ere, hasierako eztabaida gauzatzea, 1212ko eta 1512ko gertakariak ospatzeko 2012an eginen diren ekintzen ardatz izanen

den testuinguru historikoari buruz, eta, bereziki, gertakari horiek izan ziren garaian Europan zegoen testuinguruarekin izan zuen loturari buruz. Hori dela eta, erabaki da nazioarteko kongresu bat antolatzea, Nafarroako Erresumaren konkista eta Espainiako Monarkia gehitzea kokatzeko Europako potentziek XVI. mendean abian jarritako bateratze-prozesuen barruan.

Era berean, batzorde zientifikoak zenbait jardura koordinatu ditu, artxibategiekin, erakusketekin, argitalpenekin, kongresuekin eta abarrekin zerikusia dutenak.

Azkenik, batzordeak eskatu dio Nafarroako Gobernuari zabal ditzan 2011tik aurrera egiten diren jarduerak, eta irudi komun bat gara dezan gertakari hauen inguruan egiten diren ekitaldietarako.

Beraz, hurrengo seihilekoan eginen diren jarduerak bideratuko dira jada zehazturik dauden ekintzak garatzera, bai eta 2012ari begira sor daitezkeen bestelako proposamenak aztertzerare.

Hori igortzen dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Artzapezpikutzak Eslabako jabetzak jabetza-erregistroan immatrikulatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Artzapezpikutzak Eslabako jabetzak jabetza-erregistroan immatrikulatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera egin du Santa Crizko aztarnategiari buruz (PES 654). Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- Ez da kontseilari honen eskumena horri buruzko iritziak adieraztea.

2.- Bai. Santa Crizko aztarnategiaren plan zuzendarian aipatu egiten dira plan horretan sarturiko finka guztien jabeak.

3.- Bai. Nafarroako Gobernuak aztarnategi horri buruzko azterketak eta lanak sustatu ditu, plan zuzendaria enkargatu du, eta aztarnategia interes kulturalerako ondasun gisa deklaratzeko espedienteari ekin dio (23/2010 Ebazpena, otsailaren 4koa).

4.- Aztarnategian urteroko indusketa-lanak egingen ari dira, eta lan horien jarraipena ziurtatuta dago, Nafarroako Gobernuak sustaturiko finantzaketa-iturri desberdinen bitartez.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Artzapezpikutzak jabetza-erregistroan immatrikulatutako ondarean azken 25 urteetan eginiko inbertsioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Artzapezpikutzak jabetza-erregistroan immatrikulatutako ondarean azken 25 urteetan eginiko inbertsioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera egin du Artzapezpikutzak jabetza-erregistroan

1998tik inskribatutako ondarean azken 25 urteetan eginiko inbertsioei buruz (PES 660). Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Eskaturiko informazio-bolumena dela-eta (azken 25 urteei buruz galdetzen da; beraz, izugarri handia da), eskatzen dizut zehazkiago adieraz dezazun zer den jakin nahi duzuna, edo Ondare Historikoaren Zerbitzura jo dezazun, bulego-ordutegian, ezagutu nahi dituzun espediente guztiak kontsultatu ahal izateko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

